SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko agorrilak 1, ostirala • 2. aldia • 474. zenbakia

Guaixe.net

Joseba Fernandez zilarra Europako txapelketan

Kirolak >> 18

Agorrileko festa ospakizunak Etxarrenek zabaltzen ditu gaur. Bihar Etxarri Aranatz batuko zaio, gero gehiago

Agenda >> 9-16

www.guaixe.net berritu zenetik 55.000 bisita

Sakanako euskarazko hedabideen atariari harrera ederra egin diote Interneteko erabiltzaileek >>3

Banderengatik Gobernuak Altsasu auzitara

Ikurren Legea urratzea leporatzen dio udalari >>6

Agiri despopulatuko indusketak hastear dira

Agorrilean elizako indusketa despeditu eta etxeko indusketan sakondu nahi da. Boluntarioak ongi etorriak dira >>5



Vueltatik hilabetera pista zartatuta

>>8

Inoizko Zorri Azokarik handiena

Gaur, 17:00etatik 21:00etara, Etxarri Aranazko plazan >>7

«Herriko tabernen» auzian bi sakandar zigortu dituzte

>>6

Erkudengo Ama abesbatza Ingalaterrara

Hiru kontzertu eskainiko ditu heldu den astean >>22

Porlandegitik kaleratutako ELAko kideen aldeko epaia

>>8

June Kintana zortzigarren Munduko Txapelketan

>>18

Palestinaren aldeko aldarrikapenak Sakanan

>>6

Jon Arretxek bere azken lana aurkeztu digu

>>23

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA
Leiho·Isolatzaileak • Alumninioa·P.V.C·Mistoak
GURE RENOVE PLANA
%20ra arteko deskontua
Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Harriet
ZORIONAK Harriet!! Urtebetetzearen egun ona opa dizuegu. Oporrak asko disfrutatu, maitia. Asko maite zaitugu. Aitite eta amama.

Harriet
ZORIONAK Harriet!! Hau da gure mutikoa, hau!! Gero eta harroago gaude zutaz. Segi hain alai eta irrifartsu maitia. AMZ ama, aita, Amets eta Aner.

Belatz
ZORIONAK Belatz txapeldun. Etxekoak.

Ekain
ZORIONAK Ekain, potxolo eta ongi pasa zure egune.Etxekoak.

Olatz
ZORIONAK Ioar, aita eta amaren partez. Oso ondo pasa. Muxu pila.

Anaitz Mendinueta Arretxe
ZORIONAK zure 3. urtebetetzean. Jarraitu beti bezain alai eta bihurri. Muxu handi bat Izarne, aitatxo eta amatxoren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 3,50€

Bikoitza: 7€

Ceferina Amondaraini bilobek dantzatu zioten aurreskua.

Arakilgo eguna, arrakastatsua

Arakildarrek larunbatean ospatu zuten euren eguna. Goizean Egiarretako Itxasperriko Santiagon bildu ziren. Uharte Arakilgo erraldoiekin kalejira egin eta gero, Mikel Goiaingeruak ere elizkizunetan egon nahi izan zuen. 90 urte dituen Ceferina Amondaraini eta aurten jaiotakoei omenaldia egin ondoren, Orritz taldeak emanaldia eskaini zuen. Auzatearen ondoren, Urritzolan bildu ziren, eta argazki lehiaketako lanak eta traktore zaharren erakusketaz gozatu ondoren, bazkaltzera eseri ziren. Ordu txikiak arte luzatu zen festa.



Giro polita izan zen Itxasperrin.

Orritzekoek ikuskizun ederra eskaini zuten, ezkontza tarteko.

Traktore zaharren erakusketa.

Mikel Garziandia San Migel aingerua eskuetan, erraldoi eta trikitilariez lagunduta.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.
107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net
Pizgu irratia!
ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Jon Arretxe,
Euskalteleko txirrindulari ohiak,
Zorri azokak urte bat...
Esataria: Eneida

SAKANA

55.000 bisita www.guaixe.net atariak berritu zenetik

Bisitak

Ia 55.000 bisita izan ditu atari berriak eta 22.000 erabiltzaile bakar edo bisitari. Bisita gehien jaso dituen hilabetea ekaina izan da 10.145 bisita, alegia

Abenduan berritu zenetik interneteko erabiltzaileek harrera ederra egin diote Sakanako euskarazko hedabideen atariari

Bierrik fundazioak sustatzen dituen komunikabideak, Guaixe astekaria eta Beleixe irratia, 2007tik daude Interneten. Baina sarean berrikuntzak etengabeak dira eta fundazioak aspaldi Interneteko presentzia berritzeko premia sumatu zuen. Abenduaz geroztik www.guaixe.net eraberritua dago eta Sakanako berri modu erakargarriagoan zabaltzen du munduko plaza den sarean.



gertutik >>

Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena

Bierrik Fundazioko kudeatzailea

Web orri berrituaren lehen sei hilabeteen zein balorazio egiten duzu?
Oso positiboa.

Aspaldikoa zen web-orria berritzeko asmoa, ezta?
Bai. Informazioa kontsumitzeko joera berriak ikusita, telefono mugikorretara egokitutako web orri bat behar genuela garbi zegoen. Gainera, informazioa formatu multimedia berritan eskaintzeko aukera eskaintzen dute teknologia berriek eta haietara egokitzeko beharra ikusi genuen. Azkenik, baina beste arrazoiak bezain garrantzitsua dena, sakandarren parte hartzea sustatu nahi genuen web orriaren bidez.

Aurkezpenean esan zenuten elkarlanean sortutako web orri bat dela.
Bai. Tokiko euskarazko hedabideen elkartean, Tokikom-en, gauden bost hedabideren apustua izan zen. Tokikomen barruan egindako hausnarketetan sektorea profesionalizatzeko apustu garbia egin zen eta baliabideak hobe aprobetxatzeko beharra ikusi zen. Web orriaren plataforma elkarlan horren fruitu da.

Beraz, euskarazko tokiko hedabideen artean aitzindariak izan zineten?
Hala da. Beleixe irratia, www.guaixe.net ataria eta Guaixe astekaria, hiru komunikabideak plataforma berrian txertatu genituen. Apustua ausarta izan zen eta joera berriei egokitzeko ezin hobea.Aurten beste bost tokiko hedabide batu dira.

Baina Guaixe astekaria eta Beleixe irratia kinka larrian egonda, nolaz ausartu zineten?
Sakanarako proiektu interesgarria zela garbi geneukan. Eta gure hedabideak indarberritzeko bide bakarra zela ikusi genuen. Egia da 2012an kinka larrian egon ginela, Nafarroako Gobernuko diru laguntzak desagertu zirenean. Baina 2000esker kanpainaren bidez 1.500 bazkide lortu zituen fundazioak eta laguntzaile horiei guztiei kalitatezko komunikabideak eskaintzen jarraitu nahi genuen. Eta haiei eta sakandar guztiei parte hartzeko aukera gehiago eskaini nahi genizkien.

Eta zein dira web berriaren abantailak?
Lan taldea egokitu da eta askotariko edukiak jarri ditu sarean: argazki albisteak, audioak, bideoak, argazki-galeriak... Aurreko web orria paperezko astekariaren sareko bertsioa izatera mugatzen zen. Gainera zorion agurrak, eskelak, agenda edo eta iragarki laburrek espazio berri bat izan dute atarian. Lan talde osoak ikasi du atari berriaren funtzionamendua eta hori oso positiboa da.

Zuzeneko jarraipenen bat ere egin duzue?
Bai. www.guaixe.net-ek eta sare sozialek eskaintzen duten aukera erabili izan dugu Etxarri Aranazko herri galdeketan edo Gure Esku Dago ekimenak antolatutako giza katean. Ahaleginak egun horretako bisitarien kopuruan isla du, nabarmen handitzen delako.

Sakandarren parte-hartzea sustatzeko asmoa aipatu duzu. Baina, nola?
www.guaixe.net atariaren Komunitatea atalaren bidez. Edonork, izan banako edo talde, han sartu daiteke eta bere profila sortu. Han idatzitakoa edo igotako argazkia gure web orriko azalean ikusgai egoteaz aparte, Guaixeko sare sozialetara bidaltzen da.

Momentuz zein erantzun izan du Guaixe-net-eko Komunitateak?
Dagoeneko 67 sakandarrek eta 44 taldek eman dute izena eta aldian-aldian euren idatzi, ohar edo argazkiak argitaratzen dira web orrian. Momentuan Sakanara eta mundura zabaltzen dituzte oharrak edo berriak, paperezko bertsiora itxaron gabe.

Nola egin daiteke kide?
Bakarren batek Komunitateko kide izan nahi badu, errez asko du, bi aukera baitaude. www.guaixe.net atarira jo eta goian, eskuinean, dagoen "sartu" botoiari sakatu. Eskatzen diren datuak bete eta profila eginda. Bierrik-en oniritzia jasota, aurrera. Hala ere, bada jendea bere web orria edo bloga egina duena eta halako profil bat elikatzea lana bikoiztea dela. Haiek lasai asko lotu dezakete euren bloga gure Komunitateko profilarekin. RSS bidez egiten da.
Zalantzaren bat izanez gero, 948 562 107 telefonora hots egin edo bierrik@guaixe.net helbidera idatzi behar da.

Artista, betiko!

astekoa

Aingeru Mikeo

'Ni hiltzen naizenean, tralarala… / ni hiltzen naizenean / ez ehortz elizan' zioen 70 hamardakan Txomin Artola eta Amaia Zubizia buru zituen Haizea taldearean erritmo bizi eta alaiko abesti batek. Berriki joan zaigun Nestor Basterretxea artistarik handienetakoak ere horixe zela bere desioa esana zuen eta, horrexegatik, hileta zibila eginez agurtu zuten bere senide eta lagunek.

Sortzearen bidez biziberritzen zen artistak, euskal sustraietatik edanda etorkizuna irudikatzen zuenak, hirurogei urte eman zituen artearen eta pentsamenduaren abangoardian, mundu osoan onartua. Bere lan aipagarrienetako bat euskal mitologian inspiratutako 'Euskal Kosmografia Seriea' da. Haritz zurez irudikatu zuen Jose Miel Barandiaranek euskaldunen irudimentegitik berreskuratutako mundua, zeinetan, Ortzi, Mari, Sugar, Amalur, Basajaun, Basandere, Lamiak eta gainerako jainkoak naturarekin harmonia ederrean bizi diren.

Bere bizitza luzea izan zenez, Nestorrek tartea hartu zuen bizitzaz eta heriotzaz gogoeta egiteko. Gaztaroan gerraondoa pairatu eta erbestea ezagutu zuenak, umorez, eskerrak ematen zituen bera ez zelako joanen faxistak joaten diren mundu horretara, horrek bere onetik aterako lukeela.

Horrexegatik, erraz irudikatzen ahal dut nire gogoan, Nestor, beste mundu magiko horretan, errotulagailua eskuan papera zirriborratuz, Basajaun, Basandere eta Lamien jolas bihurrietan inspiraturik, Mariren begirada misteriotsuak argiztatuta, bere sormen lanak biziberritzen, gozotasunez. Goraintziak!

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Testigantza bat

Oraingo honetan Hipotekak Kaltetutako Pertsonen Plataformak herritar baten testigantza ekarri dizue.

Egun on guztioi, niri gertatutako istorioaren hasiera beste jende askorena bezalakoa da. Lanik gabe gelditu nintzen, eta senarraren soldata ez zen aski lau familiakoen oinarrizko beharrak asetzeko eta ohiko ordainketei aurre egiteko. Beraz, gorriak eta beltzak ikusten hasi ginen. Hilabete batzuen buruan are larriagoa zen arazoa. Senarraren soldata berandu eta gaizki heltzen zen, nominak berandu kobratzen ziren, askotan ez zeuden osorik, gainera, eta aparteko soldatak ere ez ziren heltzen. Oso latza zen gure arazoa, fakturak eta hipoteka garaiz ordaindu behar baitira. Handik gutxira zorren bat metatzen hasi ginen, eta, hipoteka ordaintzen bagenuen, janik ez. Orduantxe ohartu ginen zerbait egin behar genuela. Bankuarekin komerietan hasi ginen, irtenbideren bat bilatu nahian. Urtebeteko ahalegin horretan bankuarekin hitz egiten saiatu ginen askotan hipoteka gelditzeko, baina ez genuen deus lortu. Egun batean, Autobus geltokian nintzelarik HIPOTEKAK KALTETUTAKO SAKANAKO PERTSONEN PLATAFORMAk (HKSPP SAKANA) jarritako kartel bat ikusi nuen, eta, ez nuen zalantzarik izan; horiengana jo nuen.

Ederki hartu gintuzten, eta, lasaitu eta lagundu ondoren, berehala joan ziren gurekin bankura irtenbideak bilatzeko. Azkenik, esan nahi geniena entzun ziguten bankukoek. Urte oso batean lortu ez genuena, plataformak hilabete gutxitan lortu zuen, eta berehala gelditu ziguten hipoteka. Bi urteko gabe-aldi bat izan zen gure irtenbidea. Bietatik bat iragan da jada. Hara joaten jarraitzen dut, ni bezala edo okerrago dauden beste kaltetu batzuei ahal dudan guztietan laguntzeko. Gaur egun, plataforma nire familiako beste kide bat da. Plataformari esker jende askok jasotzen ahal du laguntza.

Azkenik, orain edo aurrerantzean arazoren bat izaten ahal duzuenoi plataformara joateko deitu nahi dizuet, HKPP jende askori laguntzen ari baitzaio: ZOAZTE!

Hipotekak Kaltetutako Sakanako Pertsonen Plataforma

hara zer dien

Denondako dago publikoa

Udak gorputza gehiago erakustera animatzen gaitu. Eguraldi onak, eguzki izpiek, erreka eta itsasoko urek gorputza elikatzen dute.Gorputza da gure desioen iturri, eta sedukzioaren jokuan giltzarri nagusia. Hori bai, erakarpenaz eta gorputz gustagarrietaz ari garenean, askotan irudi batzuk datozkigu burura. Irudi hauek, gehienetan komunikabideek eraikita izaten dira, eta ez dute ondo jasotzen kalean gertatzen dena, edo behintzat sexologoek sexologiako klaseetan eta kontsultan ikusten duguna.

Eguneroko lanak erakusten digu, erakarpenaz eta gorputzetaz hitz egiten ari garenean ezin dugula ahaztu gorputza neurri bat baino gehiago dela.

Zer esaten didazue ahotsaren erakarpenaz, usaien erotikaz, edo begiradaren indarraz?

Gure gorputzak eta izaerak osagai ezberdinak ditu (gorputz forma, begi kolorea, gorputzeko atalen tamaina, gorputzaren mugimendua, ahotsa, gorputzaren usaina…)

Goian aipatu dudan moduan, zenbatetan ez gara ahots batekin liluratuta geratu? Zenbatetan pertsona baten usainak eszitatu gaitu? Erreparatu diozue noizbait gorputzen atal ezberdinen mugimenduei?

Azken finean, elementu asko ditugu besteengan erakargarriak suertatu daitezkenak, baina askotan guztien irudimenean komunikabideek eraikitzen dituzten gorputz erakargarrien ereduak agertzen dira, eta honela norberaren gustoak alde batera uzten ditugu. Emakume eta gizonak nabarduraz beteta gaude, eta zorionez erakarpenen mundu hau beste espazioak bezain anitza da.

Honengatik eta nire irakasle izandako Joserra Landarroitajauregi sexologoak askotan aipatzen zigun bezala, ez ahaztu "guztiek daukagula gure publikoa".

Olatz Berastegi. Sexologoa. Lilima taldea

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Palestinan ez da gerrarik!

Igor Artieda Galdeano

Arturo Carreñori erantzunez. Gerrarik ez, diozu. Palestinan ez da gerrarik. 1948. urtetik txikizioa gertatzen ari da. Genozidioa. 1948. urtetik Nazio Batuek Israeleko estatua Palestinar lurretan sortzea erabaki zutenetik, Israel egunero etengabeko suntsitze batean jarduten da. Egunero hilketak eragiten ditu, palestinarren giza eskubiderik oinarrizkoenak ere zanpatzen ditu. Guztia, nazioarteko legedia apurtuz, nazioarteak berak beste aldera begiratzen duen bitartean.

Palestina munduko espetxerik erraldoiena da. Harresiz inguratua dago. Bertara sartu zein ateratzeko Israelek eman behar du baimena. Israelek kontrolatzen ditu Palestinako ur, gas eta argindar hornidurak zein ospitaletara iristen diren medikamentuak. Blokeo zorrotz bat indarrean dauka Palestinan. Berak nahi duenean, Palestinara ez da ez ur, ez gasik, ez argindarrik eta ez medikamenturik iristen.

Horrelako egoerak egunero gertatzen dira. Zertarako direla uste duzu komunikabideetan erakusten dizkiguten tunelak? Israelek dioen bezala terroristek eraikitako horiek? Bizitza gutxieneko baldintzetan aurrera eramateko beharrezko baliabideak eskuratzeko. Blokeoa gainditzeko tresna dira.

Israel erasoan da eta Palestina dagokiona defendatzen, hori besterik ez. Batzuek "terrorismo" deitzen diote. Nik aldiz, askatasunerantz palestinar herriaren borroka zilegia eta duina.

Doazela lerro hauen bitartez Palestinarren borrokarekiko nire miresmenik handiena eta elkartasuna ere. GORA PALESTINA ASKATUTA!

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Saileurordetza

SAKANA

Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu izendapenaren zain

Ingurumen Departamentuak pasa den ostegunean bederatzi Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) berriren eta haien kudeaketa planen berri eman zuen. Euren landaretza eta faunagatik Nafarroako aniztasun biologikoaren adierazle dira babestu diren eremu horiek. Aurretik Nafarroan beste 10 KBE zeuden, horien artean Urbasa-Andia natur parkea dago.

Jose Javier Esparza kontseilariak aurreratu zuenez, Kontserbazio Bereziko Eremu izendapena onesteko zain dago Aralar mendia, "aurki eginen dugu". Dagoeneko Interes Komunitarioko Lekua izendapena du Aralarrek eta Natura 2000 sarearen barruan dago. Azken hori Europan naturaren kontserbaziorako tresna nagusia da.

Uharte Arakil

Beste hilabete bat Agiri despopulatua ageriago uzteko

Madotz eta Aralarko santutegia lotzen dituen bidearen bazterrean dago Agiri (Agiregi) despopulatua. Agorrila han emanen du Pedro Arrese Villanuevak Zizur Nagusiko institutuan historia irakasle denak eta Ezpilleta elkarteko kideak. Hirugarren urtea da arkeologia-indusketa eginen dena Agirin. Eta aurten ere, bi eremutan lan eginen da: eliza eta etxea.

Agiriko eliza (13x6) barrutik erabat garbitzez bukatu nahi du Arresek, aldare aldea. Hura despeditzean planoak hartuko ditu. Aurrekoetan erliebedun harriak (ateko kapitelak?) eta alaka zuzen eta borobilduko harriak agertu ziren. Elizaren hormaren luzeran harrizko banku bat izan daitekeena ere agerrarazi zuten. Lanek elizako zorua nolakoa zen jakiteko balioko dute. Elizatea hilerria izan zenaren gainean eraiki zuten ere aztertu nahi du. Lanak bukatzean eliza ongi garbitua utzi nahi du.

Arresek lan eginen duen beste eremua zenbatu dituzten 13 etxetako bat da. 105 metro karratuko azalera du eta 90 cm-ko paretak. Haien altura ez da metro batera iristen. Atea, hegoaldean, non egon daitekeen susmoa badute. Hura opatzea eta egitura agerian uztea izanen da egitekoa. Ate inguruan iltzeren bat opatzea espero du eta aurreko urteetan bezala zeramika zatiak.

Boluntarioak

Indusketan borondatez lan egin nahi duenak Arreserekin harremanetan jarri behar du, 697 649 425 telefonora hots eginez.

Uharteko boluntarioak Agiriko elizan lanean. ARTXIBOA

Nafarroako Udalak baso-lanetarako diru-laguntza deialdi eske

Nafarroako 60 alkatek, hainbat sakandar tartean, eskaera egin diote Nafarroako Gobernuari

Nafarroako 60 alkatek salatu dute aurten diru-laguntza horietarako deialdirik ez dela egin. Lan horietara foru administrazioak urtetik urtera diru gutxiago bideratzen duela ere salatu dute alkateek. 2008an 4 milioi euro izan ziren eta pasa den urtean 1,8, "haietatik gehienak aurreko urteetan egindako lanak ordaintzeko, beraz lan berri gutxi egin ziren pasa den urtean". Basoak behar bezala mantentzeko udalek nahikoa baliabiderik ez dutenez diru-laguntzak ezinbestekoak direla nabarmendu dute 60 alkateek.

Alkateen kexuaren berri izan ondoren, Nafarroako Gobernutik jakinarazi dute urte akaberan 2014-2020 Landa Garapen Programa onartuko duela eta hari lotuak izanen direla baso-lanetarako diru-laguntzak.

Altsasu

Euskararen ordenantza hasiera batean onartua

Udalak Palestinaren aldeko hiru mozio onartu zituen

Altsasuko Udalak hasiera batean onartu zuen udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza. Garaiz Urrestarazu Zubizarreta alkateak esan digunez, ordenantza egiteko lanketa polita egin da eta hainbaten artean adostasunak lortu dira. Bozketan EHBilduk eta Geroa Baik aldeko boza eman zuen eta PSN, IU eta PP abstenitu ziren. UPN ez zen bilkuran izan. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren hilabeteko epea izanen da helegiteak aurkezteko.

Altsasuko Udalak, bestalde, Palestinaren aldeko hiru mozio onartu zituen, EHBilduk, IUk eta Askapenak aurkeztutakoak. Alkateak jakinarazi digunez, konpromisoa hartu dute Israeli boikot aktiboa egiteko. Udalak erabiltzen dituen produktuen jatorria aztertuko dute eta baten bat israeldarra bada, hura erosteari utzi eta beste bategatik ordezkatuko du.

SAKANA

Bi sari eder eman ditu Beleixeguaixe Txartelaren erabilerak

Susana Arregi eta Erkuden Goikoetxea, sarituak.

Sakatxartela Asteburua izan zen aurrekoa. Beleixeguaixe Txartela duten guztiek euren erosketak egiterakoan txartela erakuste hutsarekin bi sari ederren zozketan sartu ziren. Hainbat izan ziren txartelaren abantailak baliatu zituztenak eta, aldi berean, zozketan sartzeko aukera eskuratu zutenak. Haien artean bi sari eder zozketatu zituen Bierrik fundazioak hirugarren Sakatxartela Asteburuan.

Lehen saria Lakuntzako Susana Arregirendako izan da. Errotainek eskainitako bi zaldi ibilaldi eta Otzaurteko bentan bi lagunendako bazkaria irabazi ditu. Bigarren saria, berriz, Altsasuko Erkuden Goikoetxeak eskuratu du. Erein argitaletxearen liburu lotea eta norbaiti oparitzeko Beleixeguaixe Txartel (urte bateko epemuga du) bat eskuratu ditu.

Txartelaz

Urte guztian Sakanako 80 establezimendutan baino gehiagotan deskontuak eta abantailak eskaintzen du Beleixeguaixe Txartelak. Gainera, bi hilero egiten diren Sakatxartela Asteburuko sariak eskuratzeko aukera dute txartelak. Eta hori gutxi balitz, txartela dutenen artean ere hilero sariak zozketatzen dira.

Beleixeguaixe Txartelak bere izenean dioen moduan, Sakanako euskarazko hedabideak laguntzeko sortutako txartel bat da. Bierrik fundazioak sustatzen du txartela. Urtean 50 euroren truke eskuratu daiteke. Ordaindutako horretatik %25, gainera, errenta aitorpenean itzulera du.

Hurrengo Sakatxartela Asteburuak

Irailaren 26tik 28ra
Azaroaren 28tik 30era

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

NEREA
ILEAPAINDEGIA
NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

xapatero taberna
948 460 162
Etxarri-Aranatz

sorgiñak taberna
LAKUNTZA
948 576 357

2x1
Txikiko
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

SAKANA

Zigorra «herriko tabernen» auzian

Epaiari helegitea iragarri dute eta hura irmo izan arte ez da epaiko neurririk hartuko

Duela 12 urte eta 3 hilabete zabaldutako auzi baten epaia atzo jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak. 35/02 auzia edo herriko tabernen epaia eman zuen atzo, ezker abertzaleko 20 kideri espetxe zigorra ezarriz eta 103 herriko tabernen konfiskazio agindua emanez. Defentsak dagoeneko iragarri du Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea jarriko duela.

Epaileek HBko eta Batasunako zortzi kideri "ETAren fronte instituzionala" osatzea eta, beraz, ETAko kide izatea. Hiru urteko espetxe zigorra eta sei urteko inhabilitazio zigorra jaso dutenen artean Juan Cruz Aldasoro dago. Etxarriarrak dagoeneko bi urte eta bost urteko espetxealdia egina du eta epaia irmoa balitz zazpi hilabeteko espetxe zigorra bete beharko luke.

Epaiketa berean, herriko tabernen zatiko auzipetuei ETAri laguntzea egotzi diete. Epaiaren arabera, elkarte horiek "ETAren egitura" finantzatzen zuten. Horregatik, urtebete eta hiru hilabeteko espetxe zigorra eta 4 urteko inhabilitazioa ezarri die dozena bat auzipeturi. Jaione Intxaurraga urdiaindarra da zigor hori ezarri diotenetako bat. Intxaurragak bi urte eman zituen behin behineko espetxealdian. Bestalde, epaiaren 103 herriko taberna Espainiako estatuaren eskura pasako lirateke. Horien artean dago Altsasuko Herria Eginez elkartea.

Juan Cruz Aldasoro.

» Arbizu

Palestinako bandera udaletxean

Palestinako Marda herriarekin Arbizuk duen senidetza aipatu zuen alkateak.

Ostiralean San Juan ermitako olibondoaren inguruan egindako ekitaldian jarri zuten Palestinako bandera Arbizuko udaletxean. 50 bat pertsona elkartu ziren udalak deitutako ekitaldian. Gazaren kontrako Israelen erasoa salatu eta elkartasuna adierazteko trikiti doinuak, olerkiak, lore eskaintza eta Martxelo Diaz kazetari eta brigadistaren hitzaldia izan ziren.

Miren Mendinueta alkateak udalak onartuko duen mozioa irakurri zuen ekitaldian. Israelek Gazaren kontrako eraso militarra salatzearekin eta arbuiatzearekin batera, Arbizuko Udalak hura lehenbailehen eteteko eskatu dio Israeli. Ondoren, su eten orokorra indarrean jartzea nazioarteko begiraleen bermearekin. Su etena indartzeko hainbat konpromiso eskatuko ditu Arbizuko Udalak: Gazako blokeoa altxatzea eta populazio zibilak pairatzen dituen beste zigor neurriak bukatzea. Palestinako estatua sortzeko helburuz elkarrizketa inklusiboak egitearen alde agertuko da udala, "sufrimendua eteteko eta eskualdera egonkortasuna bueltatzeko". Onartu ondoren, mozioa Mardako herriari eta beste erakunde batzuei bidaliko die Arbizuko Udalak.

Altsasu > Palestinaren alde

Larunbatean 150 bat pertsonek parte hartu zuten Palestinaren aldeko elkartasun kontzentrazioan. Israelek Gazaren kontra martxan duen eraso militarra salatu eta gaitzetsi zuten Askapenak

» Irurtzun

Sexu erasoak ekiditeko oinarrizko ikasgaia jaso dute gazteek festetan

Gazteen bazkarira sexismoan aditu bat agertu zen eta ezetz esaten ikastearen garrantziaz eta ezezkoa ulertzea eta errespetatzearen aritu zitzaien

Sexismoaren aditua zenaren esanak adi-adi segitu zituzten Barazki-Gunean elkartu ziren 80 gazteak. UTZITAKOA

Bazkaldu ondoren, Barazki Gunean ederki asko solasean zeuden 80 gazteren aurrean, ezustean, sexismoan aditu bat agertu zen. Bere jardunean, sexismoan adituak galderak luzatu zizkien mahaiaren bueltan zeuden gazteei: zergatik kostatzen zaigu ezetz esatea? Pertsona batzuei zergatik kostatzen zaie ez ezezkoa dela ulertzea? Ezezkoa arlo askotan eman daitekeela azaldu zuen adituak, esaterako: ez dut kalimotxorik nahi, ez dut zurekin harremanik nahi. Adituak gazteen esanak entzun, zuzendu eta bideratu zituen bere jardunean zehar.

Seximoan adituak despeditu aurretik Irurtzungo gazteei aholkatu zien errespetua eta berdintasuna oinarri hartuta festetan denek gozatzeko aukera izanen zutela. Ez, ezezkoa dela gogoratu ondoen. Oinarrizko mailako irakaspen horren ondoren despeditu zen aditua, ikasgai garrantzitsu horretan mailaz igo ote diren jakiteko hurrengo urtean ebaluazioa egiteko "mehatxu" eginda. Bakarren batek Lorena Zabaletaren antza hartu zion adituari.

Sorpresa

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Udalak sexu-erasoak ekidite prebentzio kanpainaren barruan antolatutako "sorpresa" sexismoan adituaren agerpena. Kanpainako antolatzaileek hura festetan kalera ateratzeko eta bizia emateko laguntza eman zuten gazte guztiei eskerrak eman dizkiete.

MOTZEAN

Nafarroako Gobernuak banderengatik udalaren kontrako auzitara jo du

Nafarroako Ikurren Legea urratzen duela eta Ikurrina kentzeko eskatu dio udalari

Otsailaren 23az geroztik Zelai eta San Juan kaleen bidegurutzean Nafarroako eta Altsasuko banderak eta ikurriña daude, masta banatan. Bertako ikurren aldeko herri dinamika batek jarri zituen hiru banderak, udalari haiek jartzeko baimena eskatu ondoren.

Jarri eta berehala Jose Javier Esparza Abaurrea Toki Administrazio kontseilaria Altsasuko Udalarekin harremanetan jarri zen, ikurriña kentzeko eskatuz, Nafarroako Ikurren Legea urratzen zuela argudiatuz. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak esan digunez, "udalak banderak jartzeko baimena eman zuen, baina ez da haien tutore". Gobernuak auzitegira jo zuenean, kautela-neurri bezala banderak kentzea eskatu zuen, baina epaileak halakorik ez zuela onartu azaldu digu alkateak.

Urrestarazuk nabarmendu du banderengatik gobernuak auzitara eraman duen herri bakarra Altsasu dela. Alkateak gogoratu du banderak ez direla udaletxeko fatxadatik ikusten eta eraikinetik 150 metrora daudela. Ikurren Legean jasotakoa betetzen dutela uste du alkateak.

ERREAKZIOAK

Banderak jarri zituen herri mugimendutik azpimarratu dutenez, "ikur horiek herri dinamika batetik atera ziren. Ez dira inongo instituzio, eragile edo norbanakorenak. Altsasuar ororenak dira". Aldi berean, "gure sinboloak" defendatzera deitu dute.

NaBai 2011ko zinegotzi Unai Hualdek "UPNren banderen gerra berezia" salatu du. Horren atzean erregionalisten "obsesioa" ikusi du Hualdek. Haren ustez udala auzitegira eramatea "helburu ideologikoekin burututako jazarpen argia eta zentzugabekeria handia baino ez da" eta jokabidea aldatzeko eskatu dio.

Extremera Nafarroako PPren kudeaketa batzordean

Nafarroako PPko presidente zen Enrique Martinde Marcosek dimisioa eman ondoren alderdiko estatuko buruek Nafarroako zuzendaritza baliogabetzea eta berria eratzea erabaki zuten. Horretarako, popular nafarrek bilera egin zuten atzo, kudeaketa batzordea osatzeko. Pablo Zalba europarlamentarioa da batzordeko buru eta harekin batera popularren Nafarroako kargu publiko nagusiak daude. Kudeaketa batzordeko 39 kideen artean dago Juan Antonio Extremera Apestegia, PPko Sakanako Eskualde Batzordeko burua eta Etxarri Aranatzen zinegotzia dena. Batzordearen egitekoa zuzendaritza eta buru berria aukeratzea izanen da, besteak beste.

Etxarri Aranatz

Inoizko Zorri Azoka handiena

Urtea ospatzeko ekoizle eta artisau ugari elkartuko dira gaur, 17:00etatik 21:00etara, Etxarriko plazan

Urte bat beteko du gaur Zorri Azokak edo azoka sozialak. Sakanako artisauak eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleak elkartzen dira egitasmo horretan. Hileko lehen ostiralero euren mozkinak salgai jarri dituzten plazan, azoka bestelako eskaintzekin osatuz. Gainera, hilero ibarrekoak ezziren ekoizle bat edo bi gonbidatzen zituzten. Gaur Zorri Azokatik pasa diren artisau eta ekoizle guztiak daude gonbidatuak. Ikuskizunek ere tokia izanen dute, ohi bezala.

Zorri Azokaren sustatzaileen luzerako helburua da Etxarri Aranatzen Sakanarako, Goierrirako eta abarrerako erreferentziazko azoka bat sortzea. Urtebeteko eskarmentuarekin azalpenak eman dituzte Beleixe Irratian (FM 107,3) Alazne Juanizek eta Susana Aiestaranek.

Azoka bakoitza egin baino bi aste lehenago elkartzen dira kideak, "zorritsuak", hura prestatzeko, asanbladan. Aiestaranek aitortu duenez, "azoka bat zerotik sortzea ez da erraza izaten ari. Jende asko gara. Zailtasunak sortzen dira, baina ikasten ari gara". Aldaketak egon badira ere, Juanizek urte betean taldea sortzeari eta egonkortzeari garrantzia eman dio. Sakanako artisauak eta ekoizlek parte hartzera gonbidatu dituzte.

Harreraz

Orokorrean harrera oso ona izan dela esan digu Juanizek, "Lortu dugu etxarriarrak hurbiltzea. Bada jendea ostiralero pasatzen dena azokatik. Baina ez dugu lortu beste herrietatik etortzea". Aiestaranek gaineratu du ez dutela arlo hori landu, hala ere, "egin dugun gutxiarekin nahiko jende jakinaren gainean dago".

Salmentez galdetuta batzuk asko eta beste batzuk batere ez dutela saltzen aitortu digute. "Ez da berdina iduneko bat edo koadroa bat saltzea" esan du Aiestaranek Beleixe Irratian (FM 107,3). Baina azken horiek azoka euren burua ezagutzera emateko aukera ederra ikusten dute azokan eta, horregatik, jarraitzen dutela azaldu du Aiestaranek. Azokari denbora emateko asmoa dute parte-hartzaileek.

Bai Aiestaranek bai Juanizek aitortu dute orain arte lan handia egin dela. Azken horrek gaineratu du: "daramagun denbora laburrean nahikoa lortu dugu. Ez dugu nahi genuen guztia lortu, baina lortuko dugu". Hala ere, konturatu dira zenbait aldaketa egin behar direla.

Gaur egungo eskaintza

Egurra lantzen duten artisauak, haria makramearekin lantzen dutenak, bitxigileak, paper eta oihala lantzen dutenak, bertako nekazari eta abeltzainak… horiek dira Zorri Azokan opa daitezkeen produktuetako batzuk. Juanizek azaldu duenez, "ekoizleen artean joan etorriak izan badira ere, produktua mantendu da".

Erronka handiena, Aistaranendako, artea da. "Artearekin ez dugu gertuko harreman bat. Artea ikusteko, edo arteaz gozatzeko joan behar duzu museo, galeria batera edo… Azokaren espazioan artista batzuk euren koadroak, eskulturak… aurkeztu ditzakete. Niretako polita da arteari bere tokia ematea, erronka da, jendea ez dagoelako ohituta koadroak kalean ikustera".

Arropa, artea, jakiak, apaingarriak… denetarik opa daiteke Zorri Azokan.

Irailean, data aldaketa

Gaur Zorri Azokak urte bat beteko du. Hileko aurreneko ostiralero izan da azoka Etxarri Aranazko udaletxeko estalopean edo plazan. Ostiraletan Etxarrin jendea ateratzen denez, data egokia izan zitekeela pentsatzen zuten. Antolatzaileek datari eutsi diote aukera eman nahi ziotelako, baina ikusi dute ez dela egokiena "Sakanako azoka egin nahi badugu". Neguan azoka jartzen zutenerako dagoeneko ilunduta zegoen. Gainera, nekazariendako eta abeltzainendako ez zen ona ostiral arratsaldea. Aldi berean, goizez gehiago saldu daitekeela uste dute.

Arrazoi horiek guztiengatik, irailetik aurrera Zorri Azoka igande goizetan izanen da, 11.00etatik 15:00etara. Igandeetan izatean parte hartzeari utzi dioten ekoizle batzuk bueltatuko dira eta Sakanako ekoizleen parte hartzea handituko dela uste dute. Aldi berean, sakandarrak Etxarrira errazago joateko aukera izanen dute.

Herrietara

Bere burua Etxarritik kanpo ezagutzera emateko, udan Zorri Azokak Irurtzunen, Uharte Arakilen, Arbizun, Bakaikun eta Iturmendin egin dira. Agorrilaren 22an Lakuntzan eta 30ean Irañetan izanen da azoka. Udalei emandako babesagatik eskerrak eman diete. Baita Etxarri Aranazkoari ere. Herrietako promozio azoka horiek udan egin beharrean urtean zehar egitea aztertuko dute aurrerago, jendea udan oporretan egon daitekeelako.

Harremanetarako

zorriazokainfo@gmail.com

SAKANA

Enrike Zelaia Josefina Arregi klinikakoendako jotzen

Klinikako lagunen elkarteak antolatu zuen emanaldia, gaixoak, senideak eta bisitariak alaitzeko

Akordeoiaren aztiak, Amaia San Migel pandero-jolearen laguntzaz, atzo eguerdian kontzertua eskaini zuen Josefina Arregi klinikan. Harrera oso ona izan zuen emanaldiak gaixo, haien senide eta bisitarien artean. Lehen zatian Zelaia bakarrik aritu zen eta lau pieza jo zituen: Erkudengo Ama, Dantzari, Bariaziodun valsa eta Haurtxo polita. Ondoren, San Miguelen laguntzarekin, erromeria doinuak etorri ziren.

Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak antolatu zuen akordeoilariaren emanaldia. Erietxeko fundazioaren egoera okertu zenean eta 2011n Osasunbideak kontzertua berritzerakoan erakutsitako jarrerak makina bat sakandarren kezka sortu zuen. Orduan sortu zen elkartea klinikari babesa emateko eta erietxearen lanaren garrantziaz gizartea kontzientziatzeko. Gaur egun 408 bazkide ditu, diru ekarpenak egin edo auzolanetan parte hartuko dutenak. Pertsonak edo enpresak ere egin daitezke bazkideak.

Amaia San Miguelek eta Enrike Zelaiak jendea dantzan jarri zuten.

Elkarteak jaso duen dirua zuzenean klinikari ematen dio. Gainera, 52 elkartekidek klinikaren mantenu lanetan aritzen dira, auzolanean. Doan emandako materialekin klinika margotu dute eta bestelako konponketa lanak egin dituzte. Argindar kontsumoa murrizteko gaur egun bonbilak aldatzeko aukera aztertzen ari dira.

Klinika

Hiru zerbitzu eskaintzen ditu. Batetik, ospitale gunean 21 ohe ditu. Bestetik, eguneko zentroan, alzheimerra eta bestelako dementzia gaitzak dituzten makina bat sakandar izaten dira. Haiei propio bideratutako programa segitzen dute. Krisiarekin eta familiendako diru-laguntzen murrizketarekin, zerbitzu hori izan da eragin gehiena sentitu duena. Nahiz eta elkartetik esan diguten hobera egin duela. Azkenik, Josefina Arregi klinikako profesionalek kanpo kontsulta zerbitzua dute. Gaitzen diagnostikoak, jarraipena eta tratamenduan familiak laguntzen dituzte.

Harremanetarako

http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.es
amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com
689035120 (Patxi)

Bideoa

www.guaixe.net

Nonerabili

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

AMETSA LIBURUDENDA
ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua jostailu eta puzzleetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

JAVIER AUTOESKOLA
IRURTZUN
% 10eko deskontua matrikulan.

PATXI GALARZA
IRURTZUN
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA
ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Uharte Arakil

Vuelta hilabete batera eta pistan konponketarik ez

Uharte Arakilgo Udala pista konpontzeko Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain dago

Aralarrerako pista zenbait tokitan zartatuta dago.

Espainiako Vueltaren irailaren 3ko etapa Aralarko santutegian despedituko da, Uharteko baso-pistatik igota. Pista Uharteko Udalaren jabetza da eta Udalak ez zuen lasterketa bertatik pasatzeko baimen eskaerarik ere jaso, horren berri prentsaren bidez jakin zuen. Jakina, formak ez zitzaizkion egoki iruditu udalari.

Gauza jakina da pista egoera kaxkarrean dagoela, pitzaduraz eta zuloz beteta. Uharteko Udala sarritan saiatu da pista konpondu ahal izateko Nafarroako Gobernuaren laguntza eskatzen, baina ez du jaso. Nafarroako Gobernuaren erantzuna, betikoa: pista Uharte Arakilgo Udalaren jabetza dela eta udalari dagokiola konpontzea. Baina sekulako dirutza da eta Uharteko Udalak ezin dio aurre egin. Behin txirrindulari batek mina hartu zuen pistan erorikoa izan eta gero, eta ordutik udalak zehaztu zuen pista ez dela egokia bertatik txirrindulaz ibiltzeko. Hortaz, bertatik ibiltzearen ardura txirrindulariek hartzen dute bere gain.

Vuelta pistatik pasatuko zela jakin bezain pronto, Uharteko zinegotzi Ainara Aiestaran Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari Pruden Indurainekin bildu zen. Aiestaranek adierazi zuenez, Indurainek pista konpontzeko konpromisoa hartu zuen. "Guk ez dugu Vuelta eskatu eta hortaz, guk ez dugu pistaren konponketa ordainduko. Gure arkitektoek txosten bat prestatu zuten eta pistan zein konponketa egin zehaztu zuten (174.500 euroko aurrekontua, BEZ-a gabe). Indurainek esan zigun berari ere Sustapen Departamentutik balorazio bat egin ziotela eta 100.000 euro pasako lanak aurreikusten zirela. Ados zegoen guk aurkeztutakoarekin. Baina ordutik euren atzetik ibili gara eta ez dugu konpromiso gehiagorik jaso" azaldu digu Aiestaranek.

Erantzunik ez

Vuelta San Migelen hilabete bat barru jokatuko da eta pistan ez da inolako lanik egin. Guaixetik Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentura eta Kirol zuzendaritzara jo dugu lanak egingo ote diren edo ez galdetzeko, eta pista Nafarroako Gobernuaren jabetza ez denez, bertan ez dela lanik egitea aurreikusten izan da jaso dugun erantzuna. Uharteko Udalean oraindik erantzunaren zain daudela konfirmatu digute. "Sustapen Departamentuko Errepideen Mantenu alorreko proiektuen zuzendari orokorrak esan zigun pistaren inguruko balorazioa egina zutela, baina ez digute balorazio hori bidaltzen. Gu atzetik gaude, balorazio hori eskaka, baina ez dugu erantzunik. Gainera, Indurain oporretan dago abuztuaren erdialdera arte eta ez dakigu ezer. Kezkatuta gaude segurtasunarengatik, pista egoera txarrean dagoelako. Gozokia aurrean jarri ziguten, pista konponduko zutela, baina hilabete eskasa falta da probarako eta ez dugu berririk" dio Uharteko zinegotzi Juanak.

Lanekin hasteko beranduegi da jada. Pentsatzekoa da pitzadura eta zulo potoloenak behintzat estali edo partxeatu beharko dituztela. Pentsatzekoa zen Vueltaren aitzakian pista konponduko zutela, baina Nafarroako Gobernuak ez du erantzuten.

Altsasu

Lezalden egin gabeko lanen soka

Urbanizazioa egitekoa zen enpresari udalak 114.629,66 euroko kalte-ordaina ordaindu beharko dio

Espero zuten epaia uste baino lehenago jaso dute Altsasuko Udalean. 2006an Lezalde dermioa urbanizatzeko lanak egitekoa zen Coyser enpresa, 1.921.000 euroren truke. Egitasmoaren kontra zeuden auzokideek urte hartako agorrilean hainbatetan geldiarazi zituzten lanak eta gero udal egitasmoak auzi-bide luzea hasi zuen.

Urbanizazioa egin ez zenez, Coyser enpresak industria-onura eskatu zion Altsasuko Udalari. Epaitegiaren arabera udalak 114.629,66 euro ordaindu beharko ditu. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak esan digunez, "udalak orain bete behar bat du, zorra pagatu. Hala ere, beste irtenbide batzuk bilatzen saiatuko gara. Enpresaren eta udalaren arteko akordio bat edo". Uda garaian epaitegiak jai dutenez, ildo horretan zerbait aurreratzea espero dute.

Udalaren finantza egoera eraginen dion epaia dela aipatu digu alkateak. "diru-laguntzak murriztu edo desagertu dira, zerbait aurreztendugu. Baina horrekin herrian gutxieneko lehentasunak besterik ezin ditugu egin".

Olatzagutia

Kaleratzeak baliogabetuta, langileak porlandegira bueltan

Epaileak Cementos Portland Valderrivas diskriminazio sindikalagatik zigortu du

Kaleratuak izan ziren langileak, enpresako, Sakanako eta Nafarroako ELAko ordezkariekin. UTZITAKOA

Pasa den urteko iraila akaberan Olatzagutiko porlandegiko 9 langile kaleratu zituen Cementos Portland Valderrivas (CPV). Akabera hori izan zuen udaberrian hasi eta taldeko porlandegi guztiei eragin zien kontratuak hausteko enplegu erregulazio espedientea. Kaleratuetako 9etatik 6 ELAko kideak zirenez, sindikatuak epaitegira jo zuen kidetze eta jardun sindikalagatik diskriminazioa salatuz.

Lau langileren kasuan dagoeneko arrazoia eman die epaileak, haietako bik astearteanjaso zuten epaia. Beste bi astelehenetik lanean daude porlandegian. Falta diren bi langileen epaiketak irailean izanen dira. Epai horien ondorioz, CPVk langileak hartu behar ditu, haien soldatak ordaindu, oporraldiak errespetatu, langabezi sariak bueltatu eta abar.

Hala ere, ELAk jakinarazi duenez, CPVk helegitea aurkezteko asmoa du. Enpresari kaleratzeen baliogabetasuna onartzeko eskatu diote ELAtik, "eta lan harremanetan beldurraren eta mendekuaren politika ahazteko eskatu dute".

Sei kaleratuekin batera, gaur prentsaurrekoan agertu dira ELAko porlandegiko ordezkari Aitor Irigoien, Sakanako ELAko arduradun Gorka Vierge eta Nafarroako sindikatuko buru Mitxel Lakuntza. Azken horrek esan duenez, "epaiak aniztasun sindikala indartzen du eta sindikalgintza aldarrikatzailearen kontra jo nahi duten enpresak zigortzen ditu".

Oroituz

Irigoienek gogoratu duenez, "negoziazio aldian esan genuen enpresak hainbeste kaleratze egiteko emandako arrazoiak ez zirela nahikoa. Hain gogorrak ez ziren beste aukera batzuk bazeudela esan genuen. Baina UGTk eta CCOOk ez zuten enpresari aurre egiteko borondate handirik erakutsi". Lakuntzak nabarmendu duenez, negoziazio hura egun Nafarroako buru den Javier Lekunberrik gidatu zuen, "urteetan irabazi handiak izan dituen multinazional baten enplegu suntsiketa legitimatuz".

ELAko kideek gogorarazi dutenez, "espedientearen sinaduraren lotsa borobiltzeko UGTk eta CCOOk bozketa babestu zuten, ordurako kaleratuak ELAko kideak izanen zirela isilean jakinarazi zen. Bi sindikatuetako afiliatuek parte hartu zuten bozketan, ELAko kideak kaleratuz euren postua salbatzeko modua ikusten baitzuten".

Viergeren ustez, dozena erdi kaleratzeekin "CPV ELAren azken urteetako jardun sindikalagatik mendekatu zen". Sakanako ELAko buruak epaian jasotakoa nabarmendu du: "ELA historikoki porlandegian oso aktiboa izan da eta mugagabeko hainbat greba egin ditu. Horrek azaltzen du zergatik duen enpresak sektoreko gainontzekoek baino lan eta soldata baldintza hobeak". Viergek azaldu duenez, "langileen eskubideen defentsak ELAko kideek egin duten lana enpresak, UGTren eta CCOOren laguntzarekin, zigortu nahi izan du".

Enpresak bere defentsan kaleratuen kidetze sindikala zein zen ez zekiela argudiatu zuen, baina epaileak ez du halakorik onartu. Viergek gaineratu duenez, "kaleratuak aukeratzeko erabili zituen irizpideak zein ziren azaltzeko ez da gai izan enpresa. Eta kaleratuak betetzen zituzten lanpostu batzuk desagertu direla esatean ez du epailea konbentzitu".

UGT: CPVk erabaki zituen kaleratzeak

Kaleratutako lau langile enpresara itzultzeko epaileak hartutako erabakiaren aurrean Olatzagutiko porlandegiko UGTk "poza" azaldu du, eta nabarmendu du epaiak "kaleratzeen arduradun enpresa egiten duela soilik". Pasa den urtean Cementos Portland Valderrivasek (CPV) talde guztiarendako aurkeztu zuen enplegu erregulazio espedientearen negoziazioan UGTk asmo hirukoitza izan zuela gogorarazi du: kaleratzeen kopurua ahalik eta gutxien izatea, kaleratuendako kalte-ordain handienak lortzea eta ahalik eta lantegi gutxien ixtea.

Olatzagutiko porlandegian hasieran 29 langile kaleratzea aurreikusten zela eta azkenik 16 izan zirela (8 aurre-jubilazio) gogorarazi zuen. Baita ELAk bere egin ez zuen eta sinatu ez zuen estatuko akordioa asanbladaren %71k babestu zuela ere esan dute UGTtik. Kaleratuen zerrenda enpresak egin zuela nabarmendu nahi izan dute. Ekoizpena %67 jaitsi denean Olatzagutiko porlandegia zabalik eusteko helburuz aritu zirela berretsi dute UGTkoek.

Udako agenda

ETXARRI ARANATZ

Zorri azoka, merkatu soziala

>> Agorrilaren 1ean, ostiralean

17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko plazan.

FESTAK Etxarren:

>> Agorrilak 1, ostirala
19:00etan Txupinazoa eta festen hasiera.
19:15ean 2013 eta 2014an jaiotakoei festetako zapia ematea.
19:30ean III. Herri-jokoen Mundu Txapelketa.
22:00etan Herri-afaria, Iruñabiderekin.
00:00etan Dantzaldia Elebitan-ekin.

>> Agorrilak 2, larunbata
11:30ean Hamaiketakoa.
12:30ean Bordetxe abere zirkoa.
18:30ean Txokolate-jatea.
19:00etan Hiruko saskiratzeen txapelketa.
20:00etan Dantzaldia Elebitan-ekin.
21:30ean Bingoa.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30ean Herri-afaria, Iruñabiderekin.
00:00etan Dantzaldia Elebitan-ekin.

>> Agorrilak 3, igandea
11:45ean Hamaiketakoa, gaitari talde bikainarekin.
12:00etan Orritz dantza taldea.
16:00etatik 20:00etara Haurrendako jolas parkea.
17:30ean Pilota partidak: Gaintza-Laso /Garro-Martirena. Gazte eta helduen partidak ere.
19:30ean Mexikanak: Pancho Balbuena.
21:00etan Bingoa eta zozketak.

>> Agorrilak 4, astelehena
11:30ean Hamaiketakoa.
12:30ean III. Munduko Ping Pong Txapelketa.
14:30ean Herri-bazkaria, Iruñabiderekin.
16:30ean Mus eta briska txapelketak.
17:00etan Kale-antzerkia.
00:00etan Hau pena nik!

SAKANA

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma

>> Agorrilaren 1ean, ostiralean

19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

UTZITAKOA

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 1ean, ostiralean

20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

FESTAK
Etxarri Aranatz:

>> Abuztubek 2, launbeta: Etxia! Egune

10:00etan Ehiza ibilbidea. Muxar Ehiztari Taldea.
12:00etan Zapi-banaketa. 2013an jaiotako haurrei eta kartel lehiaketako irabazleen sari-banaketa.
13:00etan Festa hasierako suziria. Ondoren kalejira Etxarri Aranazko buruhandiekin, Uharte Arakilgo erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, Etxarri Aranazko gaiteroekin eta Jaialdia txarangarekin.
14:00etan Jaialdia txarangaren kontzertua plazan.
17:30ean Pilota partidak. Gure Pilota Elkartea
Emakumezkoak palan: Andrea-Jaka / Atxa-Uxue eta Olaia-Izar / Murillo-Lasa.
Gizonezkoak pilotan: Araña-Senar / Jaka-Araña, Otxoa-Lazkoz / Ansotegi-Igoa eta Alex-Arbizu / Nazabal-Joao
17:30ean Kalejira Jaialdia txarangarekin.
18:30ean Etorkizuna Euskal Dantza taldearen ikuskizuna, plazan.
20:00etan Manifestazioa. Euskal Presoak Euskal Herriratzerako mugimendua.
20:00etan Salbea Andra Mari baselizan, Etxarri Aranazko abesbatzak eta Parrokia-ko abesbatzak kantatutakoa. Eliza.
20:30ean Auzatea: Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karrikestu elkarteek prestatua.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 04:30era Gaupasa Tximeleta taldearekin.

>> Abuztubek 3, iyendie: Arañaz elkartien egune

10:30ean Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.
11:30ean Auzatea Gure Etxea elkarteak prestatuta.
12:00etan Meza nagusia. Eliza.
12:30ean Herri kirolak plazan. Aizkora apustuak eta harri jasotzaileak. Laguntzailea: Insalus.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:30ean Musika ikuskizuna: Alaitasuna errondalla.
17:30ean Haurrendako jokoak.
19:00etan Pertsonaia mitologikoen kale animazioa Orritz taldearekin.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 03:00etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.

>> Abuztubek 4, astelehena: Kuadrillaan egune

10:30ean Dianak txarangarekin.
11:30ean Auzatea, Etxe-Azpi Elkarteak prestatuta.
12:00etan Haurrendako Bordetxe abere zirkoa.
13:00etan Etxarriko buruhandiak eta bonba japoniarrak.
13:30ean Bertso-saioa plazan: Jon Maia, Sustrai Colina eta Jone Uria.
18:00etan *Metamorfosis* guztiondako ikuskizuna.
19:00etan Kalejira, Jaialdia eta Dakapo txarangekin.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 03:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.

>> Abuztubek 5, astiertie: Haurren egune

11:30ean Auzatea, Udaberri elkarteak prestatuta.
11:30etik 13:00etara Jolas parkea haurrendako. Bonba japoniarrak.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:00etan *A ze nolako banda parranda.* Haurrendako musika, dantza eta jolasa.
17:00etan Futbol-plaza txapelketa, kale nagusian. Antolatzailea: Osasuna fundazioa.
17:00etatik 19:00etara Jolas parkea. Umeendako puzgarriak, zezen mekanikoa eta zappy elektrikoak.
19:00etan Play back txapelketa plazan. Sariak: bakarka edo binaka aritzen den onenari 75 euro, taldeka aritzen den onenari 100 euro, originalenari 75 euro eta euskal abesti onenari 75 euro.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

>> Abuztubek 6, astizkena: Aittun-amiñaan egune

11:30ean Neska gazteenen pala-partidak. Gure Pilota elkartea.
11:30ean Auzatea, Hartzabal elkarteak prestatuta.
12:00etan Meza. Eliza.
12:00etan *Musikoeroa* guztiondako ikuskizuna.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:30ean Musika ikuskizuna: Euskorleans.
14:30ean Aittun-amiñaan bazkaria.
16:00etan Aitor soinujole eta musikaria, aittun-amiñaan bazkarian.
17:00etan XXVIII. Iruñerriko itzulia, jubenilen txirrindularitza lasterketa. Aralar Txirrindularitza Taldea, Insalusen laguntza-rekin.
17:00etan Ume txikien pilota-partidak. Gure Pilota elkartea.
19:30ean Kale antzerkia plazan: *Il Duo Canneloni.* Zirika Zirkus taldea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 03:00etatik Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Abuztubek 7, ostegune: Kintuen egune

10:30ean Dianak Jaialdia txarangarekin (kintoek etxez etxe dirua eskatzen duten eguna). Urteko kintoek antolatuta.
11:30ean Auzatea, kintoek prestatuta.
11:30ean Haurrendako jolas ibilbidea, plazan. Guraso elkarteek antolatuta.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
17:00etan Kalejira Jaialdia txarangarekin.
19:00etan Kintoek antolatutako jinkana.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 03:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

***Oharra.** Etxarriko festetan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko kanpaina sustatu du Udalak. Taberna eta txozna guztiek hartuko dute parte. Zaborrik onena, sortzen ez dena!

ETXARRIKO HERRI MUGIMENDUAREN PROGRAMA

>> Abuztubek 2 launbeta: Euskal preso eta errepresaliatu politikuen egune

10:30etik 12:30era EGAren futbito txapelketan finala.
13:00etan Txupinazua. Denok presuen aldeko zapiyakin!
14:30ean Herri bazkaye eta omenaldiye.
20:00etan Manifestaziyue. *Etxean eta aske nahi ditugu!*

>> Abuztubek 3, iyendie

8:00tatik aurria Gosayek karpan.
20:00etan Kostillada gaztetxien.

>> Abuztubek 4, astelena: Kuadrillen egune

14:30ean Herri bazkaye karpan. Bazkal ondoren Anartz Iturbe eta Esebio lasarterekin Shooowa!!!
19:00etan Kuadrillen igoera gaztetxetik.

>> Abuztubek 6, astizkena: Gazte egune

14:00etan Bazkai herrikoie karpan.
17:00etan *Fatxai tiro!* Plazan.
18:00etan Herriko tabernetatik poteue Orkresta Nacional elektrotxarangakin.
23:00etan Kontzertubek gaztetxien: E.T.S. (En Tol Sarmiento), Txapelpunk eta ondoren gaupasa DJ BULL-ekin gazte txoznan.

>> Abuztubek 8, Inutillan egune

11:00etan Sardin jana plazan.
14:00etan Herri bazkaye plazan.
17:00etan Inutillen desfilie herriyen zier.
19:00etan Pregonan irakurketa plazan.
20:00etan Kontzentraziye plazan. Etxean nahi ditugu!
22:00etan Inutillen entzierrue.
23:00etan Kontzertubek plazan: El baston de la vieja eta Los Zopilotes Txirriaos.

KARPA PROGRAMAZIYUE

Afal ondoren, giro paregabie!

>> Abuztubek 3, iyendie
Fermin Valencia

>> Abuztubek 4, astelena
Dorronsoro eta Bersategi trikitilayek.

>> Abuztubek 5, asteartie
Bertso afaye Julio Soto vs Iker Zubeldia.

>> Abuztubek 6, astizkena
Bideo proiekziyue: A-13, Gure Esku Dago, Jai Parekidiek.

>> Abuztubek 7, ostegune
Enemigos Intimos (Sabinan bertsiyuek).

ALTSASU

Herri ostiralak

>> Agorrilaren 1ean, ostiralean,

20:00etan Altsasuko Foru plazan mobilizazioa, gero afaria. Ospa!

ALTSASU

Camillen ibilbidea

>> Agorrilaren 2an eta 3an, larunbatean domekan

Altsasuko Mendigoizaleak.

UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

>> Agorrilaren 2an, larunbatean

11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

IRANETA

Irintarrak Aralarko santutegira

>> Agorrilaren 3an, igandean, 12:30ean

Agorrila aurreko hiru igandeetan San Gregorio eta San Migel Berri ermitetan eta Basabeko bordan erromeria egin ondoren, igandean Aralarko santutegira joanen dira irintarrak. Meza eta gero han geldituko dira bazkaltzera.

ETXARRI ARANATZ

X. 3x3 Futbol-Plaza Txapelketa

>> Agorrilak 5, astearte

17:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusian.
Osasuna fundazioak antolatu du X. 3x3 Futbol-Plaza. 8-12 urte arteko neska-mutikoek har dezakete parte. Hiru kidez osatutako taldeak lehiatuko dira txapelketa honetan. Izena ematea egunean bertan. Sailkatuek Iruñean jokatuko den final handian hartuko dute parte.

IRURTZUN

Udako zinema: Percy Jacson y el mar de los monstruos

>> Agorrilaren 6an, asteazkenean

22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 8an, ostiralean

20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

FESTAK Zuhatzu:

>> Agorrilak 9, larunbata
12:00etan Etxajua.
12:30ean Buruhandiak.
14:30ean Bazkaria, haragi errea.
17:30ean *Amico* antzezlana. Bubamara Dance Theater (Txori Garcia eta Jon Barbarin).
18:30ean Txokolate jatea.
19:30etik aurrera Dantzaldia eta karaokea Juan Carlos ADT music-ekin.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Dantzaldia eta karaokea Juan Carlos ADT music-ekin.

>> Agorrilak 10, igandea
12:00etan Meza nagusia.
12:30ean Puzgarriak.
14:00etan Kaldereteak.
17:00etan Mus txapelketa. Saskien zozketa.
20:00etan Hau pena nik eta etxajua.

UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

>> Agorrilaren 9an, larunbatean

11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

UHARTE ARAKIL

Beriain, erromeria zeru-goietan

>> Agorrilak 10, igandea

Beriain gainean dagoen ermita San Donato eta San Kaietanori eskainia dago. Haienak izanen diren erlikiak urte guztian Uharte Arakilen gordetzen dituzte, baina haiek gurtzera ermitara igotzen dira aspalditik uhartearrak. Eta haiekin batera makina bat sakandar eta olloarandar. Guztiak 11:00etarako mezarako igoko dira. Elizkizunaren ondoren Uharte Arakilgo Udalak otamena eskainiko du (gazta, txorizoa, urdaia, ardoa...) olloibardarrek kafea eta pastekin osatuko dutena.
Agorrilaren 7a San Donato eta San Kaietano eguna da. Antzinatik egun horretan uharte arakildarrek erromeria egiten zuten Beriaingo ermitara, baina gaur egun agorrilaren 7tik gertuen dagoen igandean egiten da erromeria.

ALTSASU

Ziordia-Araia

>> Agorrilaren 10ean, domekan

Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

IRURTZUN

X. 3x3 Futbol-Plaza Txapelketa

>> Agorrilak 11, astelehena, Irurtzunen.

Osasuna fundazioak antolatu du X. 3x3 Futbol-Plaza. 8-12 urte arteko neska-mutikoek har dezakete parte. Hiru kidez osatutako taldeak lehiatuko dira txapelketa honetan. Izena ematea egunean bertan. Sailkatuek Iruñean jokatuko den final handian hartuko dute parte.

ALTSASU

Arratsalde dibertigarriak: abentura

>> Agorrilaren 12an, asteartean

17:00etatik 20:00etara Altsasuko Dantzaleku igerilekuan.

Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak Udako arratsalde dibertigarriak eskaintza prestatu du. 12 urte baino gehiago dituzten gazteei zuzenduta dago. Egun horretan Dantzalekuko igerilekura joaten diren gazteek tirolina batean goitik behera ibili, eskaladan aritu eta erorketa askearekin gozatzeko aukera izanen dute. Abentura eskaintza doakoa agorrileko arratsalderako.

IRURTZUN

Udako zinema: Ahora me ves...

>> Agorrilaren 13an, asteazkenean

22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

FESTAK Dorrao:

>> Agorrilak 14, osteguna.

Bezpera.
20:00etan Festa hasierako etxajua.
20:30etik 22:00etara Musika taldea.
21:00etan Auzate.
1:00etatik 5:00etara Musika taldea.

>> Agorrilak 15, ostirala. Ama Birjina eta jubilatuen eguna
13:30etan Meza nagusia.
14:30ean Hamaiketakoa eta trikitixa.
20:30etik 22:00etara Musika taldea. Mozorro festa.
21:00etan Auzate.
22:00etan Herri-afaria.
1:00etatik 5:00etara Musika taldea. Mozorro festa.

>> Agorrilak 16, larunbata
18:00etan Aizkora-apustua: Floren Nazabal, Iban Resano, Juanjo Lopez eta Goizeder Beltza.
20:00etan Sardina- eta txistorra-jatea.
20:00etatik 22:00etara Dj Julen.
1:00etatik 5:00etara Dj Julen.
5:00etan Urteroko errolda.

>> Agorrilak 18, igandea.

IÑAKI MUNDIÑANO

Umeen eguna
9:00etan Erroldako gosaria.
18:00etan Haurren jokoak, zaldi jokoak (Urbasa takatan) eta txokolate jatea.
20:00etatik 22:00etara Dj Julen.
21:00etan Auzate.
1:00etatik 5:00etara Dj Julen.
5:00etan Hau pena nik!

FESTAK Urdiain:

Andramauztuko festak

>> Agorrilak 14, osteguna
12:00etan Festen hasierako etxajua, ardoa eta gazta banatuko da.
13:00etan Altsasuko Jubilatuen korua.
13:30ean Triki-poteoa.
16:00etan Brixka txapelketa Kaluxan eta mus txapelketa Mareon.
19:00etan Urdiaingo gazteak antolatutako futbol 7 txapelketako finala futbol zelaian. Pintxo potea eskainiko dute.
20:00etatik 22:00etara Disko festa.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:00etatik 3:30era Disko festa.

>> Agorrilak 15, ostirala
12:00etan Meza Aitziberko baselizan.
14:30ean Bazkaria Urriztin trikitilariek alaitua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia plazan Trikiteens taldearekin.
23:30etik 2:30era Dantzaldia plazan Trikiteens taldearekin.

Oharra: bazkal aurretik eta arratsaldez gazteek barra zabalduko dute Urriztin.

FESTAK Satrustegi:

>> Agorrilaren 15etik 17ra, ostiraletik igandera.

ITURMENDI

Aritzaga ermitara

>> Agorrilak 15, ostirala

Aritzaga ermitak Ama Birjinaren eguneko meza hartuko du, eguerdian. Ondoren, ermitaren izen bereko elkarteak auzatea eskainiko du.

ETXARRI ARANATZ

Bendubek amerjinan egunien

>> Agorrilak 15, ostirala

Etxarriarrak bigarren eta azken aldiz urtean merendatzera elkartuko dira Andra Mari ermitaren inguruan. Txistulariak lagun, udal agintariak 19:00etan ermitarantz abiatuko dira. Iritsi eta etxajua bota ondoren merendatzen hasiko dira etxarriarrak. Mahaitik jasota kintoek dantzakia dantzatuko dute eta ondoren kalejiran plazara jaitsiko dira etxarriar gehienak, plazan dantzaldia izanen baita Orots taldearekin. Eguraldiak laguntzen badu, lagun talde bat baino gehiago geldituko da ermitaren bueltan kantuan, iji eta aja edo hitz eta putz.

SAKANA

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma

>> Agorrilaren 15ean, ostiralean

19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.



SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 15ean, ostiralean,

20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

>> Agorrilaren 16an, larunbatean

11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

ALTSASU

Vignemale inguratu

>> Agorrilaren 15etik 17ra, ostiraletik domekara

Altsasuko Mendigoizaleak.

LAKUNTZA

Lakuntzako Pertza erromeria

>> Agorrilak 17, igandean

6:00etatik aurrera Lakuntzako Pertza erromeriak istorio bitxia du atzetik. Istorio horren arabera, garai batean lakuntzarrak San Migel santutegira igotzen ziren Asulbizio festa ospatzera, eta behin, asto gainean tripotaz beteta zeramaten pertza erori zitzaiela bidean. Pertza maldan behera bueltaka hasi, egositako tripota batek Uharteko erotariari begian jo eta betoker utzi omen zuen. Gertakari horren kontura burla asko egiten zieten lakuntzarrei. "Lakuntzako pertzak ze fin ein zuben?" galdetzen zieten. "Zuben aittek eta amak izan zubena" omen zen erantzuna. Baina lakuntzarrek buelta eman zioten burla horri, eta Lakuntzako Pertza izeneko elkartea sortu eta aipatu elkartea Lakuntzako Pertza eguna antolatzen hasi zen, asto, pertza, tripota eta guzti. Festa Ama birjinaren ondoko igandean ospatzen da, aurten agorrilaren 17an. Goizeko 6:00etan Aralarko santutegiko bidea hartuko dute lakuntzarrek Lakuntzako Pertza elkartetik, tripotak, ogia eta ardoa daramatzan astoarekin batera. Ohitura jarraituz, bide erdian, behin pertza erori omen zen tokian, geldialdia eginen dute tripotak jateko. Eta segidan San Migelera helduko dira. Aralarko santutegian meza 11:00etan izanen da. Haren ondoren tripotak, ardoa eta ogia banatuko ditu Lakuntzako Pertza elkarteak, eta Bil-toki gazte elkarteko kideek Lakuntzako Pertza dantza dantzatuko dute. Ohi denez, bazkaltzera Guardetxera jaitsiko dira lakuntzarrak. Bazkaldu ondoren Guardetxean bertan dantzaldia izanen da, 16:30etik 18:30era, eta, geroago, Lakuntzara jaitsita, 20:00etatik 00:00etara dantzaldia izanen da. Ondoren ordu txikiak arte iraunen du festak.

IRURTZUN

Udako zinema: Asterix eta Obelix: maiestatearen zerbitzura

>> Agorrilaren 20an, asteazkenean

22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

LAKUNTZA

Lakuntzako plaza berrituaren mustutzea

>> Agorrilak 21, osteguna

18:00etan Lakuntzako plazako lanak agorrilaren 21erako despeditu nahi dituzte, egun horretan mustu nahi baitute, ofizialki, Lakuntzako plaza berritua. Horretarako, 18:00etan haurrendako jolasak prestatu dituzte. Segidan, Lakuntzako festetan grabatu nahi den Euskararen aldeko flashmobaren aurkezpena eginen da. Eta, bukatzeko, herritarrek prestatutako afariarekin eta musikarekin ospatuko dute lakuntzarrek plaza berritu izana.

LAKUNTZA

Zorri azoka

>> Agorrilak 22, ostirala

17:00etatik 21:00etara Lakuntzako plazan. Sakanako artisauen azoka.

ALTSASU

Eguzkiaren eta izarren behaketa

>> Agorrilaren 22an, ostiralean

18:00etan eta 22:00etan Altsasuko Dantzaleku igerilekuan. Udako arratsalde dibertigarriak eskaintzaren barruan Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak zerua behatzeko aukera eskainiko du. 12 urtetik gorako gazteek arratsaldez eguzkia gertutik ikusteko aukera izanen dute. Iluntzen denean, berriz, izarrak behatzeko txanda izanen da. Doakoa da behaketan parte hartzea.

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 22an, ostiralean

20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

>> Agorrilaren 23an, larunbatean

11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

LIZARRAGA

Harleze eguna

>> Agorrilak 16, larunbata

Lizarragatarrak 8:00ak aldera elkartuko dira mendirako bidea hartzeko. Arrangarten, San Adrian ermita inguruan, kontzejuak indarrak berreskuratzeko gosaria emanen die herritarrei. Ederki gosaldu eta gero Harlezeko bidea hartuko dute lizarragatarrek. Behin leizera iritsita, animatuena sartu eta atera eginen dute. Horren ondoren, Lizarragako bidea hartuko dute, atzera ere.

Frontoian, 14:30ak aldera, herri bazkaria izanen da. Eta handik jasota, umorea ez galtzeko, 17:00ak aldera, Lizarragan barnako kalejirari ekinen diote. Bidean bospasei geldialdi eginen dituzten eta etxeetatik jan-edana eskainiko diete. Erronda Hegoak txarangak alaituko du. Ibilbidea hasitako tokian despedituko da, frontoian. Ordurako, 21:30ak, kontzejuak marmitakoa osagai nagusi duen afaria prest izanen du. 23:00etatik 2:00etara arteko dantza doinuak Lakuntzako Elebitan taldeak emanen ditu.

Garai batean, Harleze egunaren bezperan igotzen ziren Lizarragako gazteak mendira eta gaua kanpindendetan pasatzen zuten. Hurrengo egunean gainerako herritarrak igotzen ziren eta egun pasa ederra ospatzen zuten mendian, bazkaria eta guzti. Baina Don Jose apaiza hil zenean galdu zen Harleze eguna, lizarragatarrek berriki bereskuratu duten arte.

FESTAK
Lakuntza:

>> Agorrilak 23, larunbata:
Elkartasun Eguna
11:30ean Dianak Musika Eskolako musikariekin.
12:00etan Ezkil errepika.
12:30ean Txupinazoa.
12:30ean Erraldoiak, buruhandiak eta Haizaldi gaitariak.
13:00etan Zapi banaketa 2013an jaiotako haurrei.
13:00etan Auzatea udalaren eskutik.
13:30ean Brindisa Haizea Elkartean.
13:30ean Elai Alai Dantza Taldea.
15:00etan Elkartasunaren Aldeko herri bazkaria.
Arratsaldean Dantza Poteoa Haizaldi Gaita Taldearekin.
18:00etan Metamorfosis kale antzerkia.
19:30ean Larraindantza Herriko plazan.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeletarekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:30etik 4:00etara Dantzaldia Tximeletarekin.

>> Agorrilak 24, igandea.
12:30ean Meza Nagusia.
13:00etan Demode Quartet: Epa ikuskizuna.
13:00etan Auzatea Lakuntzako Pertzaren eskutik.
18:00etan Sakanako Bandarekin kalejira.
19:00etan Haize Berriak bandak egin duen Alkate Dantzaren bertsioarekin Lakuntzako kintoak dantzan.
20:00etan Kontzentrazioa.
20:00etan Auzatea ehiztarien eskutik eta buruhandiak.
20:00etatik 20:00etara Amets taldea.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:30etik 2:30era Amets Taldea

>> Agorrilak 25, astelehena:
Haurren Eguna
11:30ean Dianak Musika Eskolako ikasleekin.
12:00etan Erraldoiak eta buruhandiak.
13:00etan Bordetxe Abere Zirkoa parkean.
11:00etatik 14:00etara Puzgarriak plazan (jolas parkea, zezen mekanikoa, ludoteka...).
13:00etan Auzatea gurasoen eskutik
18:00etan *Sardina freskue* haur ikuskizuna.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Dj Tirri and Tery.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:30etatik 2:30era Dj Tirri and Tery.

>> Agorrilak 26, asteartea:
Aittun Amiñen Eguna
11:30ean Kalderete txapelketa.
12:00etan Meza.
13:00etan Auzatea Gure Nahiaren eskutik.
13:00etan Duo Tenampa eta Mariatxia.
14:30ean Aittun Amiñen bazkaria.
17:00etan Zinten jolasa.
17:00etan Txirrindularitza lasterketa. Sakanako Jubenilen Saria.
17:00etan Aittun-amiñendako dantzaldia Iñakirekin.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Amets taldea.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:30etik 2:30era Amets taldea.

>> Agorrilak 27, asteazkena:
Euskararen Eguna
12:00etan Lakuntza Kantuz. Kuxkuxtu musikariekin batera herrian barna.
13:00etan Karaokea eta euskal musika plazan.
13:00etan Auzatea Haizearen eskutik.
14:30etan Euskararen aldeko Herri bazkaria herri kantekin animatua. Ondoren herritarren arteko ginkana probak Herriko plazan.
19:00etan Flashmoba Euskararen Alde.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Txefekin musika.
22:00etan Zezensuzkoa.
24:30etik 2:30era Txefekin musika.

>> Agorrilak 28, osteguna:
Gazteen Eguna
12:00etan Puzgarriak plazan.
12:30ean Kituka Burundiren emanaldia.
13:00etan Auzatea Biltokiren eskutik.
14:30ean Gazte Bazkaria, bertsolariekin. Ondoren Piropo txapelketa (tiketak ohiko lekuetan).
17:00etatik 18:00etara Bertso poteoa.
18:00etatik 20:00etara Txarangarekin kalejira.
20:00etan Buruhandiak eta auzatea, Udalaren eskutik.
20:00etan Dj-Bull.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:30etik 1:00etara Kontzertua: Brigada Improductiva.
1:00etatik 4:00etara Dj-Bull.

ALTSASU

Hariztiaren interpretazio bidearen mustutzea

>> Agorrilaren 27an, asteazkenean,
18:00etatik aurrera Dantzaleku-Usolarrainen.

Ontzigintzan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsiko duen bidea mustutzeko ekitaldia antolatu du Altsasuko Udalak. 18:00etatik aurrerako festa izanen da mustutzea. Mustutze ekitaldian Altsasuko musikariak, dantzariak eta margolariek parte hartuko dutela aurreratu digute Altsasuko Udaleko Kultura Sailetik. Gainera, Cultur programaren barruan, Ane Etxegoienek 21:00etan emanen duen kontzertuarekin elkartuko da mustutze ospakizuna.

Ibilbidea prestatzeko udalak Nafarroako Gobernuaren eta Cedena-Garalurren diru-laguntza jaso du eta Albaola, itsas ondarearen fundazioaren eta Donostia 2016ren laguntza izan ditu. Erakunde horien ordezkaritza espero da mustutze ekitaldian. Alkateak harrera eginen die. Despeditzeko auzatea izanen da.

ALTSASU

Ane Etxegoien

>> Agorrilaren 27an, asteazkenean

21:00etan Altsasuko Dantzalekun Iparraldeko kantu tradiziotik edanez, Ane Etxegoienen ahots goxo eta indartsuarekin gozatzeko aukera izanen da Altsasun. Herriko abesbatzan zortzi urterekin hasi zen kantatzen. Baionako eta Bordeleko kontserbatorioetan jaso zuen prestakuntza. Lirika ardatza izandako errepertorio baten ondoren, beste eragin eta estilo musikal batzuetara ere zabaldu da, eta euskal musikaren tradizioak garrantzi handia du horretan.

Donapaleuko kantariak, bi disko ditu bakarlari gisa (Pachamama, 2008 eta Adelante, 2010) eta beste bi Baionako Aizkora gizonezko abesbatzarekin batera (Les voix célestes du Pays Basque chantent Noël, 2005 eta Les Voix Basques, 2013). Frantzian arrakasta handia lortu du telebista saio batean atera ondoren eta euskal kantu tradizionalak eta bereak kantatuz urrezko diskoa ere eskuratu zuen, pasa den urteko 10 disko salduenen artean kokatuz.

Aizkoa abesbatza, bestalde, 2001ean sortutako taldea da Dringilindron ekimen kulturalaren barnean eta Patrick Bétachetek zuzentzen du. Otxote horrek antzinako euskal kantek, gaur egungo euskal temek, pieza erlijiosoek eta Errusiako melodia batzuek osatutako errepertorioa interpretatzen du. Etxegoienekin batera makina bat jaialdi eta ikuskizunetan parte hartu dute. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harreman Departamentuan antolatutako Cultur jaialdiko musika programaren barruan dago kontzertua.

Omenduak: Mixel Lekuona eta Jose Agirrezabal

Urtero omenaldietarako tartea dago Artzai Egunean. Idiazabal Jatorri Izendapeneko lehendakari eta Artzai Eguneko antolatzaile Joxe Mari Ustarrozek adierazi digunez, Uharte Arakilgo festari lotutako bi pertsona omenduko dituzte, in memoriam, iaz zendu baitziren. Bata **Mixel Lekuona** da. Biriatuarra jaiotzez, Makeako apeza izan zen eta irakaslea Institutuan. "Euskal Herriko artzain eta gaztagileekin lotura handia izan zuen. Teknikari bikaina, gazta lanbidean hasieran asko lagundu zuen, aholkuak emanez. Izan ere, hasieran gaztagintza ez zegoen batere arautua, eta berak izugarri lagundu zuen gaztagileen eta gaztagintzaren arauketan eta beste. Eta genetikan, ardien hobekuntzan ere lagundu zuen. Gazta lehiaketa egiteko lehen kontaktua berarekin egin genuen. Maiatzaren 1ean Biriatun omenaldia egin zioten eta han egon ginen, eta egin zuen lanagatik errekonozimendua egin nahi diogu Artzai Egunean" azaldu du Ustarrozek.

Beste omendua **Jose Agirrezabal** izango da. Legazpiko Brinkola auzokoa, Hiriberrin albaitari izan zen urte luzez. "Historian atzera eginez Gironan egin zen Estatuko lehen artzain txakur lehiaketa. Oñatiko mendigoizale taldeko lagunak lanean hasi ziren Euskal Herrian I. Artzai Txakur Lehiaketa antolatzeko eta Gironako Josep Rius artzaina Oñatira ekarri zuten, txapelketako nondik norakoak azaltzeko. Horrela, txapelketa antolatzea lortu zuten. Txapelketa zabaltzeko, Oñatiko taldeak Nafarroakoa Uharte Arakilen antolatzeko proposamena egin zuen. Jose Agirrezabal haien laguna zen eta hemen ibiltzen zen, eta gurekin parte hartu izan du edizio askotan. Bera iaz zendu zen eta berari ere gure eskerrik onena azaldu nahi diogu, omenaldiarekin" adierazi du Ustarrozek.

Halaber, Oñatira azalpenak ematera etorri zen lehen artzaina, Josep Rius, duela gutxi hil da. Artzai Eguneko 40. edizioan omenaldia egin zioten, baina Uharteko aurtengo festan bere lana ere gogoratuko dute.

47. ARTZAI EGUNA. EGITARAUA

Artzainen omenaldi festa

10:00etan Epaimahaiaren hautaketa. Aurreskua.

10:30etik 14:30era Nafarroako ardi latxa esne gordinaz egindako gaztaren XXXIII. txapelketa. Saritutako gazten enkantea, dastatzea eta gaztaren feria.

10:30etik 13:30era Nafarroako XXXI. ardi latxaren erakusketa eta esne-ekoizpen lehiaketa. Latxa arrazako ardi aukeratuen XI. lehiaketa nazionala (hau da bertako ardi latxaren txapelketarik garrantzitsuena).

11:30ean Aralar-Andiara aldaketa egiten, herrian barna artaldea pasako da. Goizean Artzain bat betidaniko erara gazta egiten ikusi ahal izango dugu Donibane plazan.

11:00etatik 13:00etara Nafarroako XXVII. ardi mozte mekanikoaren txapelketa, Espainiako txapelketarako sailkagarria.

11:00etatik 12:00etara Euskal artzain txakurren, Pirinioetako artzain txakurren eta galzorian dauden arrazen XXII. erakusketa.

12:00etan Agur Jaunak. Artzain egunarekin eta kulturarekin parte hartu duten pertsona, entitate eta taldeei omenaldia.

12:15ean XX. ardiki gisatuaren txapelketa eta dastatzea.

12:45ean Nafarroako ardoen XX. dastatzea.

13:30ean Goizeko lehiaketa guztietako sariak eta txapelak banatuko dira. Ondoren, gazta erdi irabazlearen enkantea plazan.

14:30ean Uharte Arakilgo frontoi estalian herri bazkaria: Nafarroako axuria parrilan erreta (txartelak argibide mahaian salduko dira goiz guztian barna).

17:00etan Nafarroako bertako 47. Artzain Txakurren Lehiaketa Ofiziala Geinberako barrutian (Euskal Herriko eta Oñatiko Nazioarteko txapelketetarako sailkagarria). Partaide eta antolatzaile zaharrei omenaldia.

***Goiz guztian zehar:** gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketa; eskulanen erakusketa: kaikuak, egurrezko uztaiak, apaingarriak, zeramika, egurra, ardazlariak, taloak, jakiak... Euskal dantza, musika taldeak eta joaldunak.

UHARTE ARAKIL

Artzai Egunak 47 urte

>> Agorrilaren 31n

www.artzaieguna.com
Artzai eguneko informazio guztia.

10:00etatik aurrera, egun osoko jaia Uharte Arakilen.

Igandean 47 urte beteko ditu Uharte Arakilgo Artzai Egunak. Aralar Mendi elkarteak urte horiek guztiak daramatza artzainen festa bilakatu den jai herrikoi eta polita antolatzen, eta urtero jendetza biltzen da Uharteko kale eta txoko ederretan.

Urtero errepikatzen diren ekitaldiek ez dute huts eginen: gazta txapelketa entzutetsua, zenbaki potoloak mugitzen dituen enkante ikusgarriarekin, ardi mozte txapelketa ikusgarria, ardi latxa esne-ekoizpen lehiaketa, ardiki gisatuaren lehiaketa eta nola ez, artzain txakurren lehiaketa. Horrekin batera mota guztietako jaki eta gutiziak eskaintzen dituzten hamaika postu, musika lagun primerako giroan mokadutxo goxoak hartzeko txosnak eta tabernak, artisau postuetan galtzeko aukera, gazta bikainak erosteko parada, azken teknologiako lanabes eta makineriak gertutik ikusteko modua, aspaldiko ezagunekin elkartzeko aukera eta animatzen denarendako herri bazkari paregabea. Eta arratsaldean txakurrek artzainen aginduei nola egiten dieten kasu jarraitzeko aukera.

Aralar Mendi elkarteak garai bateko artzaintzaren bizimodua gogora ekarri nahi du festarekin, eta, aldi berean, egungo artzainak omendu nahi ditu festa giroan. Ogibide zahar honek sortzen dituen produktuei bultzada eman nahi zaie, eta horretarako, artzainen bizitza eta baliabideak ardatz hartuta prestatzen da egitaraua. Artaldeak Aralar mendi tik Beriainera nola pasatzen ziren gogoratzeko, 11:30ean artalde batek Uharte Arakilgo herri gunea zeharkatuko du, Ordiziako azokan egiten den antzera.

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 29an, ostiralean

20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

OLATZAGUTIA

Ocho apellidos vascos

>> Agorrilaren 29an, ostiralean

22:00etan Olatzagutiko areto futboleko pistan.

FESTAK Irañeta:

>> Agorrilaren 28tik 31ra, ostegunetik igandera.

FESTAK Errotz:

>> Agorrilaren 29tik irailaren 1era, ostiraletik astelehenera.

FESTAK Ihabar:

>> Agorrilaren 29tik irailaren 1era, ostiraletik astelehenera.

IRAÑETA

Zorri azoka

>> Agorrilak 30, ostirala

17:00etatik 21:00etara Sakanako artisauen azoka.

UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

>> Agorrilaren 30ean, larunbatean

11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

ARBIZU

Agorrila despeditzeko, Sandindeiko erromeria

>> Agorrilak 30, larunbata

Txistulariak lagun, arbizuarrak Aralar aldeko basoan dagoen Sandindei bordarantz abiatuko dira. Ibilbidea eginda, batutako arbizuar guztiendako aate pixka bat izanen da. Mahaiaren bueltan bazkaltzeko garaia etorriko da gero. Hori bai, bazkaldu aurretik eta ondoren ez da ez musikarik ez dantzarik faltako. Ilundu aurretik, trikitixa doinuak lagun, festa giroan Arbizurako bidea hartuko dute. Plazako dantzaldiarekin (21:00etatik 22:30era eta 00:00etatik 3:00etara) parranda luzatu eginen dute Arbizun.

Arbizuarrek Sandindeiko erromeria 2005etik ospatzen dute. Sanjuanetatik kanpo herritarrendako festa egun batean biltzeko premia ikusi zuten eta erantzuna bikaina izan zen. Aurten arte agorrilaren erdialdean ospatu izan da, baina hilaren akaberara aldatzea erabaki dute. Oporrak edo zubia dela eta, azken bi urteetan jende gutxiago ibili da eta jende gehiago animatzeko eta festa bera indartzeko azken asteburua pasatzea erabaki dute.

ALTSASU

XIII. Nafarroako Zirko Jaialdia: Ezin zailagoa

>> Agorrilaren 30ean, larunbatean

18:30etik aurrera Altsasuko Iortia kultur guneko zabalgunean.

ALTSASU

Collarada

>> Agorrilaren 31n, domekan

Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

ALTSASU

Festetako kartel lehiaketako erakusketa

>> Irailaren 1etik 12ra arte, astegunetan

10:00etatik 14:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

ALTSASU

Garagardo azoka

>> Irailaren 4tik 7ra , ostegunetik domekara

19:00etatik 24:00etara Altsasuko Zubeztia plazan. Zubiondo elkartea.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Maria Jesus Larrea Asurmendi

I. urteurrena

Amona, jatsi zaitez momentutxo bat zerutik, zure laztanak behar ditut eta...

Etxekoak

Altsasun, 2013ko abuztuaren 8an.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Ingeles klaseak Urdiainen. Informazioa 626 34 02 76.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Ihabarren elkartea alokagai. Denon Kabia elkartea festetan alokatzen da. Abuztuaren 29tik irailaren 1era. Interesatuek hots egin dezatela abuztuaren 11a baino lehen telefono honetara: 628 46 94 77

Galdutakoak / opatutakoak

GALDUTAKOAK

Kotxeko giltza giltzari batekin. Galdu dugu Etxarriko Aldapasoro-Malkorramendi auzoan, ostegunean (2014-07-10ean). Topatu duenak 948 46 06 14 telefonora hots egin dezala.

Ikastaroak

AES. ""Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua;; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu ; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es – 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuek euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Saharaztan boletoen zenbaki saituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza – trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritza.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

JAIOTZAK

- **Adei Anton eta Tilo Iñaki Engelmann Casas,** uztailean Ziordian.

EZKONTZA

- **Mikel Albeniz Ruiz eta Maialen Maiza Burillo,** uztailaren 19an Lakuntzan.
- **Josu Lopetegi Goldarazena eta Oihane Etxeberria Alonso,** uztailaren 26an Lakuntzan.
- **Iban Martin Frias eta Erkuden Mendinueta Alvarez,** uztailaren 26an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Visitación Pascual Jimenez,** uztailaren 23an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

kirola >>

TRIATLOIA

XABIER BORREGA 2.A AZKOIENEN: Larunbatean jokatutak Azkoiengo X. Triatloian, benjamin mailan (50 m igeri, 1,5 km txirrindulan eta 350 m korrikan) Trikuako Julen Anduezak irabazi zuen (7:37). Sakana taldeko Xabier Borrega 2.a izan zen (7:54).

Aizkora

Beltza Nafarroako II. Mailako finalerako sailkatu da

Juanjo Erdozia eta Iban Resano bidean geratu dira

Igandean Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen Elizondon. 9 aizkolari lehiatu ziren, 3 txandatan. Aizkolari bakoitzak 2 kanaerdiko eta 60 ontzako enbor bat moztu behar zituen. Iker Vicente izan zen azkarrena (6:49), Mieltxo Mindegia (6:55) eta Aitor Senosiain 7:19) aizkolarien aurretik. Asier Pellejero izan zen laugarrena (7:54) eta Goizeder Beltza etxarriarra bosgarrena (8:05). Bostok azaroaren 14an Donezteben jokatuko den final handian egoteko txartela lortu zuten. Juanjo Erdozia etxarriarra 6.a izan zen (8:08), Eneko Saralegi 7.a (8:31), Jesus Etxeberria 8.a (9:04) eta Iban Resano dorrobarra 9.a (9:17). Raul Castrok txapelketan parte ez hartzea erabaki zuenez, maila galdu du.

Pilota

Zubieta, Ezkurdia eta Zabaleta Gasteizen

Andre Maria Zuria jaietan, Aitor Zubietak Xalarekin osatuko du bikoa Binakakoan aritzeko. Irujo ordezkatuko duena eta Merino izanen dituzte aurkari, astearte gauean, 22:15ean. Irabazlea agorrilaren 8ko finalerako sailkatuko da. Beste finalerdia Bersaluze II.a-Albisuk eta Olaizola II.a-Beroizek jokatuko dute. Ardoaren desafioan ariko dira beste bi sakandarrak, agorrilaren 9an. Lau t´erdian Joseba Ezkurdiak Saralegi izanen du aurkari. Binaka Titin III.arekin osatuko du bikoa Zabaletak, Bengoetxea eta Aretxabaletaren kontra.

Disko jaurtiketa

Kintanak helburuak bete ditu Junior Mailako Mundialetan. ARTXIBOA

June Kintana, munduko zortzigarrena

JUNIOR MAILAKO MUNDIALETAN 53,36 METROKO JAURTIKETAREKIN ZORTZIGARRENA SAILKATU ZEN BAKAIKUARRA

Helburua lortuta. Horrela itzuliko da June Kintana Ameriketako Estatu Batuetatik. Garilaren 22tik 27ra Junior mailako 15. Munduko Atletismo Txapelketa jokatu da Oregon estatutuko Eugene hiriko Hayward Field pistetan. 167 herrialdeko 1.540 gaztek hartu zuten parte aipatu mundialean, 22 diziplina ezberdinetan. June Kintanak disko jaurtiketan parte hartu zuen.

Kintana Espainiako junior mailako disko jaurtitzaile txapelduna da, eta juniorren munduko rankinean laugarrena zela iritsi zen Mundialetara, 55,66 metroko markarekin. Helburua finalera heltzea eta munduko 8 onenen artean sailkatzea zen. Eta lortu du.

Emakumezkoen junior mailako disko jaurtiketan finalerako sailkatzea lortu zuen June Kintanak, diskoa 52,70 metrora jaurti eta gero. Ostiraleko final handian, Izabela Da Silva brasildarrak kolkoratu zuen urrea, 58,08 metroko jaurtiketa ikusgarriarekin. Valeria Allman estatubatuarrak (56,75 m) eta Navjeet Kaur Dhillon indiarrak (56,36 m) osatu zuten podiuma. June Kintanak bere marka hobetu zuen eta 53,36 metroko jaurtiketa egin zuen, 8. postuan sailkatuz. Horrela, Mundialetatik diploma lortuta iritsiko da etxera 19 urteko gaztea. Egindako lanari esker, Espainiako Junior Rankinean lehena eta Munduko Junior Rankinean bosgarrena sailkatu da bakaikuarra eta etorkizun oparoa dauka. Zorionak!

Irristaketa

Ioseba Fernandezek zilarrezkoa jantzi du

Astelehenean abiatu zen Europako Abiadurako Irristaketa txapelketa, Alemaniako Geisingen hirian. Espainiako selekzioa 22 irristalarirekin parte hartzen ari da eta tartean dago Ioseba Fernandez.

Iturmendiko irristalari handiak iaz urrezko domina jantzi zuen 300 metroko pistako erlojupekoan eta aurten ez du hori lortzerik izan. Darren de Souza frantziarra izan zen azkarrena, eta 12 ehuneneko eskasera sartu zen Ioseba (23.555), zilarrezko domina jantzita. Puntan jarraitzen du iturmendiarrak. Pistako probak bukatuta, zirkuituaren txanda dute orain.

Saskibaloia

Naiara Diezek Gernika taldean jarraituko du

Naiara Diez saskibaloi jokalari altsasuarra atzera ere saskibaloiko liga gorenean ariko da, Emakumezkoen Ligan. Bere taldea, Gernika Kesb, Emakumezkoen Ligako 2. mailatik lehen mailara igo zen. Altsasuarrak Gernikan jarraitzea erabaki du, lehen mailarako Gernika-Bizkaia izena hartu duen taldean, eta atzera ere lehen mailan aritzeko aukera izango du Diezek. Liga urriaren 15ean abiatuko du Gernika-Bizkaiak, UPV-ren kontrako derbiarekin.

Naiara Diez.

Diez aurretik Zaragozako Mann-Filter eta Obenasa Navarrarekin aritu zen lehen mailan.

Pilota

San Migel txapelketak baditu txapeldunak

GUZTIRA 12 FINAL JOKATU ZIREN SUTEGI-SAN MIGEL TXAPELKETAN ETA 22 URTEZ AZPIKOAN ANSAK ETA LEGARRETAK JANTZI ZUTEN TXAPELA

Olaztiko Santa Ana festetan jokatu ziren Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketako finalak. Txapelketa maiatzean hasi zen eta ordutik astebururo makina bat pilotari pasa dira frontoitik.

12 final jokatu ziren guztira. Larunbatean maila nagusiko finalak, 3. mailan, 2. mailan, 1. mailan eta 22 urtez azpikoan. 22 urtez azpikoan Ansak eta Legarretak jantzi zuten txapela. Igandean, aldiz, Sutegi-San Migel Txapelketako kategoria txikikoen finalen txanda izan zen. Txikietatik hasita gazteen mailaraino, 8 final jokatu ziren.

Antolatzaileak pozik daude txapelketak izan duen erantzunarekin. Datorren urtean gehiago.

43. San Migel Pilota Txapelketako finalista guztiak, antolatzaile eta laguntzaileekin. UTZITAKOA

Finalak:
43. San Migel PilotaTxapelketa.

3. maila: Victor-Luis **18** / Xapa-Maio **17**
2. maila: Mikel-Xabi **18** / Besga-Borrega **12**
1. maila: Joseba-Unai **18** / Barban-Aritz **8**
22 urtez azpikoak: Iturriaga-Erostarbe **14** / Ansa-Legarreta **22**

Sutegi-San Migel Txapelketa.
Kategoria txikiak:

Txikiak: Nicolas-Canceco (Errioxa) **18** / Astarloa-Bernalte (Elorrio) **10**
Umeak: Arrillaga-Zubizarreta (Lazkao) **18** / Iskander-Faben (Atxondo) **7**
Kimuak: Igoa-Etxague (Zizur) **18** / Jorge-Peso (Errioxa) **8**
Haurrak 2: Auritz-Elola (Bidania-Goiatz) **4** / Muguruza-Eneko (Laudio) **18**
Haurrak 1: Olaetxea-Apezetxea (Arbizu) **11** / Oteiza-Murua (Arrasate) **18**
Kadeteak 2: Iriondo-Aiesta (Orozko) **16** / Sagasta-Azkarragaurizar (Elorrio) **18**
Kadeteak 1: Garmendia-Murua (Lazkao) **14** / Zubeldia-Zubeldia (Amezketa) **22**
Gazteak: Egiburu-Garmendia (Lazkao) **16** / Egiguren-Eskudero (Amezketa) **22**

Areto futbola

Arbizu irabazle Irurtzunen

IRURTZUNGO 12 ORDUETAKO FINALEAN ARBIZUK 3-1 IRABAZI ZION GUNEA TABERNARI

Burututako denboraldi bikainari ginda jarri dio Arbizu K.T. areto futbol taldeak. I. Futsal Sakana areto futbol txapelketa irabazi eta Futsal Sakanako Kopan txapeldunorde izan eta gero, larunbatean jokatutako Irurtzungo 12 orduak irabazi ditu Arbizuko taldeak.

Hasieran, bi multzotan

Zazpi talde lehiatu ziren Irurtzungo 12 orduetan. A multzoan Irunlekun (Irurtzun-Lekunberri), Café Bar KE+DA (Berriozar), Gunea taberna (Irurtzun) eta Ingenieria Iradi (Altsasu), eta B multzoan Arbizu KT, Irurtzungo eta La Faif (Irurtzun).

A multzoko lehenengo partidan Irunlekunek Gunea taberna hartu zuen menpean. Segidan, Café K+DA taldeak Ingenieria Iradiri irabazi zion. Ondoren, Gunea Tabernak 4-2 irabazi zion Café K+DA taldeari, eta Ingenieria Iradik 2-0 Irunlekuni. Hortaz, finalerdietarako postua lortzeko gauzak izugarri korapilatu ziren, aukera berdinak baitzituzten 4 taldeek. Irunlekunek, partida ikusgarrian, Café K+DA taldea hartu zuen menpean eta finalerdietara sailkatu zen. Gauza bera lortu zuen Gunea Tabernak, Ingenieria Iradiri 5-3 irabazi eta gero.

Beste multzoan, Arbizuk 2-0 irabazi zion Irurtzungo La Faif taldeari. Bigarren partidan, Irurtzungok 1-3 irabazi zion La Faifi. Arbizu eta Irurtzungo sailkatu ziren.

Finalerdietan, Irunlekun eta Arbizu aritu ziren lehenik. Parezpare aritu ziren biak eta Arbizu sailkatu zen finalerako, 4-2 irabazi eta gero. Nabarmentzekoa izan zen Arbizu taldeko Jon Navarro atezainaren lana. Bigarren finalerdian Irurtzungok eta Gunea tabernak bina berdindu ondoren, penaltyetan Gunea Taberna izan zen finago eta finalera sailkatu zen.

Final handia

Arbizu eta Gunea Taberna taldeen arteko finala ikusgarria izan zen. Giroa paregabea izan zen, jende asko hurbildu baitzen kiroldegira areto futbolaz gozatzera. Lehen zatian Arbizuk baloiaren jabetza handiagoa izan zuen eta Tikok Arbizu aurreratzea lortu zuen. Nahiz eta bi taldeek aukera izan, atsedenaldira aldeko 1-0arekin joan ziren arbizuarrak. Bigarren zatian erasora jo zuen Gunea Tabernak eta Titok berdintzea lortu zuen. Emozioa pil-pilean zegoen eta atzera ere Arbizuk aurreratzea lortu zuen, Julenen gol bati esker. Gunea Taberna saiatu zen eta berdinketa lortzear egon zen, baina Ionek Arbizuko hirugarren gola sartu zuen eta horrela despeditu zen partida, Arbizuk 3-1 irabazita.
Arbizuko txapeldunek 300 euro eta trofeoa jaso zituzten eta Gunea Taberna txapeldunordeek 150 euro eta trofeoa. Irurtzungo eta Irunlekun finalistek 75 euro jaso zituzten bakoitzak. Torneoko jokalari onena Xota B taldeko atezaina den Jon Navarro izan zen, Arbizu taldekoa. 75 euro jaso zituen.

Futbola

Jorge Nagore 3. mailako Iruña taldean ariko da

Txomin Nagore futbolari irurtzundarrak 19 urte eman ditu profesional, 7 urte lehen mailan eta 12 bigarrenean. Osasunarekin debutatu zuen atzelari irurtzundarrak eta aurten 2. mailako Mirandesen ibili zen. Taldea 2. B mailara jaitsi da, eta Nagorek pena horrekin agur esan dio futbol profesionalako bere ibilbideari. Lehen mailan Athletic, Numancia, Atlético eta Mallorca taldean ibili zen eta bigarren mailan Osasunan, Atléticon, Celtan, Levanten eta Mirandesen.
Baina Txominek ez du futbola guztiz utziko, denboraldi honetan 3. mailako Iruña taldean ariko baita. "Aukera sortu da eta bertan ariko naiz, futbolari lotuta jarraitzeko modu bat delako, eta etxean egotea ahalbideratzen didalako" azaldu du Nagorek.

Kayak

Kayakean gozatzen

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak kayak jardunaldia antolatu zuen asteartean Olaztiko igerilekuetan. Eguraldia ez zen oso aproposa –eguzkia laino artean– baina Lakuntza, Arbizu, Altsasu eta Olaztitik hurbildutako 5 urtetik 14 urte bitarteko 35 partaidek eman zuten izena eta arratsalde ederra pasa zuten kayaketan ibiliz. Monitoreen laguntzarekin, hainbat ariketa ezberdin egiteko aukera izan zuten. Bukatzeko, ogitarteko eta zuku gozoaz disfrutatu zuten bildutakoek eta etxera bueltatu ziren, autobusez.

Piraguismoa-espeologia

Piragua eta espeleologia

Mank-ek piraguismoa lantzeko aukera eta Urbasako Laminatutu (Olazti) eta Cristinos (Larraona) kobazuloetan espeleologian murgiltzeko aukera eskaini ditu.

Piragua ikastaroa asteazkenean hasi zen eta igandean despedituko da. Goizeko 11:00etatik 13:00etara ibiliko dira, Burunda ibaian, Etxarri Aranatz parean. Eta espeleologia irteerak ostiralean, larunbatean eta igandean, 16:00etatik aurrera. Irakasleak Sakana Experience-eko monitoreak dira.

Atletismoa

Javi Moreno txapeldun Zornotzan

Larunbatean Zornotzako jaietan Zornotzako Milia Herrikoia jokatu zen. Javi Moreno korrikalari altsasuarrak irabazi zuen proba. Zorionak!

Txirrindularitza

Iruñeko Itzulia Etxarrin

28. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartuko du Etxarrik asteazkenean, 17:00etan

Aurten jubenilen mailako proba jokatuko da Etxarri Aranazko festetan, asteazkenean, agorrilaren 6an, 17:00etan. Eta ez edonolakoa. Zehazki, XXVIII. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartuko du Etxarrik, Etxarri Aranatzen hasi eta despedituko dena. Aralar Txirrindularitza Taldeak lagunduko du antolakuntzan.

Etapa ederra

Etxarritik aterata, Arbizura joango dira, Lizarragabengoatik pasa eta Etxarriraino iristeko. Ondoren, Etxarren Arakileraino joko dute, buelta hartu eta Arbizutik atzera ere Lizarragabengoatik pasatzeko. Etxarritik Lizarragako portua igo eta Arbizutik jaitsiko dira. Berriro Lizarragabengoara jo eta Etxarritik pasa ondoren, Lizarragarantz joko dute, Unanura heldu eta Arbizurantz jaisteko. Lizarragabengoatik pasa eta gero, Etxarri Aranazko helmuga izango dute helburu txirrindulariek (89 km).

Juniorren 28. Iruñeko Itzulia astelehenean hasiko da, Iruñeko Gaztelu Plazan hasi eta Mutiloan despedituko den etaparekin (85 km). Bigarren etapa Etxarrik hartuko du, eta hirugarrena asteazkenean jokatuko da, Iruñeko Santo Domingo kalean hasi eta Caballo Blancon despedituko dena (99,5 km). Aurreko urtean egun Rural Kutxa talde afizionatuan dabilen Odei Juango lakuntzarrak, orduan Aralar klubeko Irabia taldean zebilenak, irabazi zuen nafar onenaren saria.

2013an Juango iizan zen lehen nafarra.

Lakuntzan kadeteen XXIV. Lakuntzako Saria

Urte luzez Lakuntzako festek afizionatuen lasterketa hartu izan dute. Baina halako proba bat antolatzeak sekulako gastua du eta azkenekoa urteanez zen proba antolatu, diru faltagatik. Hala ere, txirrindularitza sustatzen jarraitu nahi du Lakuntzak eta afizionatuen probaren ordez aurten kadeteen mailako lasterketa jokatuko da festetan. Zehazki, agorrilaren 26an jokatuko da proba, asteartearekin, XXIV. Lakuntzako Saria izango dela, 17:00etan hasita. 68 km-ko proba izango da, Lakuntzan hasi eta despedituko dena. Jakina, bertako txirrindulariak lehiatuko dira.

Areto futbola

Magna Xotaren aurre denboraldia

Irurtzungo klubak Magna Xotaren aurre denboraldia prestatu du. Imanol Arregik zuzentzen duen taldea abuztuaren 6an hasiko da lanean eta gutxienik 5 lagun arteko partida jokatuko ditu lehen mailako liga hasi bitartean. Magna Xotak irailaren 13an edo 14an jokatuko du denboraldiko lehen partida. Lagun arteko partidak agorrilaren bukaeran abiatuko ditu Magna Xotak.

Magnaren lagun Arteko partidak

Agorrilaren 20an: Magna Xota - Umacón Zaragoza (Iruñean)
Agorrilaren 23an: Magna Xota - Aspil-Vidal Ribera de Navarra (Tafallan)
Agorrilaren 29an: Magna Xota - Marfil Santa Coloma (Iruñean)
Irailaren 3an: Umacón Zaragoza - Magna Xota (Zaragoza)
Irailaren 6an: Burela F.S. - Magna Xota (Asturiasen)

XOTA JUBENILA ESTATU MAILAN LEHIATUKO DA

Xota taldeko jubenilek Estatu mailako III. Multzoan jokatuko dute 2014-2015 denboraldia. Ondoko taldeekin lehiatuko dira: Ribera de Navarra, Berrio Santutxu, Gora Bilbao, Zierbana, Eskoriatza, Goierri, Laskorain, Laburu Ibarra, Castro Urdiales, Cerverano eta Albelda. Imanol Arregi entrenatzailearen laguntzaile den Mikel Diestro teknikariak zuzenduko du taldea.

#VueltaSakanan

La Vuelta bisitan

Irailaren 3an, asteazkenarekin, Espainiako Vueltako 11. etapak Iruñea eta Arakilgo San Migel santutegia lotuko ditu

Puntako txirrindulariak gertu ikusteko aukera izango dugu Sakanan. Irailaren 3an, asteazkenarekin, Espainiako Vueltako 11. etapa (151 km) Sakanan sartuko da.

Etapa Iruñean hasiko da, eta Noain, Tafalla eta Lizarra pasa eta gero, Lizarragako portutik iritsiko dira Sakanara txirrindulariak. Lizarragako gainean 16:40ak inguruan, Lizarragan 16:53an eta Etxarri Aranazko errotondan 16:59an inguruan sartuko dira. Hortik Arbizu, Lakuntza eta Arruazu pasako dituzte, eta Uharte Arakilen Uharteko pista igotzeari ekingo diote, Aralarko santutegira (1.200 metro) heltzeko. Aurreko egunean 34 km-ko erlojupekoa egitetik datoz txirrindulariak, eta, hortaz, etapa mugitua espero da. Gainera, ez dugu ahaztu behar, 2. mailako Lizarragako portua eta lehen mailako San Migeleko portua igo behar dituztela. San Migel gainean erasoak egongo direla espero da. Sakanatik sortutako Rural Kutxa proban ariko da.

Etapa nola izan daitekeen jakiteko, Euskaltel taldeko txirrindulariak izandako Egoi Martinez, Pablo Urtasun eta Jorge Azanza txirrindulariekin bildu ginen asteartean Beleixe irratian (107.3 FM). Gorka Verdugok ez zuen egoterik izan. Vueltaz aritzeaz gain, egun egiten dutenaz eta beste hitz egiteko aukera izan genuen elkarrizketan. Elkarrizketa Beleixen entzun ahalko da gaur, ostiralean, 11:30etik aurrera. Horretaz gain, elkarrizketak osorik www.guaixe.net web gunean zintzilikatuko ditugu. Bestalde, Guaixek #VueltaSakanan traola sustatu du, nahi duenak twitterren gai honi inguruko aipamenak, argazkiak eta beste zintzilikatzeko.

www.lavuelta.com

Espainiako Vueltako informazio guztia, etapak, mapak, ordutegiak eta beste.

"San Migel portu gogorra da eta mugimenduak gerta daitezke, baina ez dugu uste diferentzia handiak sortuko direnik"

Egoi Martinez, Pablo Urtasun eta Jorge Azanza

Txirrindulariak

Irailaren 3an Vueltako 11. etapa Sakanara helduko da. Nolako etapa da? Garrantzitsua?

Egoi: Espainiako Vueltak azken urteotan erabaki du ia egunero zerbait egotea baina etapak ez izatea bereziki gogor-gogorrak. Hau beste adibide bat da. Txirrindulari profesional batendako ez da etapa gogorra. Nik esanen nuke, azken zatira arte nahiko erraza dela. Baina, gero, bukaera bortitza du. Bilatzen dute tentsio bat egotea portua baino lehen eta portuan gauzak gertatzea. San Migel aurreko egunean erlojupekoa dago. Erlojupekoan liderrek dena ematen dute eta hurrengo egunetan hankak ez daude hain ongi. Zerbait gerta daiteke eta ikusiko dugu.

Baina sailkapen orokorrean min asko egiteko moduko etapa da?

Egoi: Inoiz ez dakigu. Portua gauzak gertatzeko modukoa da. Oso hasiera bortitza du. Gregarioak San Migel portuko hasierako partera indartsu iritsiko dira eta uste dut azkar eginen dutela. Gauzak gerta daitezke, baina ikusten ari gara egun halako etapa motzetan ez direla halako diferentzia handiak egiten. Vueltan, halako etapetan 30 segundo eta minutu bateko aldean egongo dira liderrak. Egunero aurrean egoten den horrek, segundoak pilatzen dituenak, irabaziko du Vuelta.

Jorge: Aurretik portu gehiago baleude, San Migelek diferentzia handiagoak eginen lituzke, baina portura batera heltzen badira, helduko diren moduan, 30 segundo eta minutu baten tarteko aldea egongo da faboritoen artean eta hor egongo da gakoa. Gerta liteke ere ihesaldi bat egotea eta beraiek borrokatzea etapa eta atzean zalaparta egotea.

Pablo: Uste dut San Migelera batera iritsiko direla eta ez direla diferentzia handiak egongo. Egunero 20-30 segundo horiek biltzen dituenak irabaziko du Vuelta.

Lehen mailako portua izendatu dute San Migel. Ados?

Guztiak: Bai.

Jorge: Portu gogorra da. Batezbeste %18ko graduko aldapa duten portu asko ez daude hemendik. Euskal Herrian holakoak baino gogorragoak Pirinioetan daude soilik.

Nola dago Uharteko portuko asfaltoa?

Jorge: Oso gaizki. Igotzeko denez, bueno, baina jaisteko balitz, oso arriskutsua litzateke. Errepidea ez dago ondo baina igo daiteke. Asfalto horrek gogorrago egiten du igoera.

Zirrikitu handi horietan gurpila sartuz gero...

Jorge: Halakoak konpondu beharko lituzkete. Partxeoren bat beharko litzateke. Ez da berdin zu bakarrik joatea eta lurra ikusten joatea edo tropela elkarrekin egotea. Hor ez duzu zorua ere ikusten.

Non jarriko zinateke etapa ikustera?

Jorge: San Migelen eta nahiko goian. Etapa ahalik eta mugituen dagoen tokian jartzea da onena. Helmugarako 3 kilometroren faltan edo.

Pablo: Ni hor ere, la huesera deitzen duten horretan. Tarte oso gogorra da eta tarte handia dago txirrindulariak urrutitik ikusteko.

Egoi: Ni jende gutxi dagoen tokian. Nik beherago, zuek joan zaitezte gora (kar kar).

Vueltarako nor ikusten duzue faborito?

Egoi: Pentsatzen direnak etortzen badira uste dut oso maila handia egongo dela eta Nairo Quintana, Joaquim "Purito" Rodriguez eta Froomen artean oso lehia polita ikus dezakegula.

Pablo: Faborito nagusia agian ez nuke jarriko, baina Purito, Quintana, Froome... lauzpabost txirrindulari daude edozeinek irabazi dezakeena.

Bi aste lehenago Sakana Burunda martxa jokatuko da. Vueltaren harira jende gehiago animatuko da aritzera?

Egoi: Agian eragina izan dezake, Nik martxak egiten ditut eta eginen nuke, baina kanpoan nago.

Jorge: Ni ez nago hori egiteko, lehenengo aldapa ere ez nuen igoko oraintxe.

Pablo: Agian nire kabuz bai, orain bi aste igo genuen Aralar Lekunberri aldetik. baina martxa batean jende askorekin, ez naiz ikusten.

Egoi Martinez, Pablo Urtasun eta Jorge Azanza gaur egun

Oraindik ez da urte bete pasa Euskaltel desagertu zela eta bertan zebiltzan lau txirrindulari sakandarrek ez dute tropelean tokirik aurkitu. Egoi Martinezek txirrindularitza utziko zuela adierazi zuen orduan eta Jorge Azanzak ere bizikleta zintzilikatu du. Pablo Urtasunek entrenatzen jarraitzen du,, hurrengo urtean taldea aurkituko ote duen itxaropenari ez baitizkio ateak itxi nahi. Eta antzeko egoeran dago Gorka Verdugo.

Pablok, Egoik eta Gorkak **entrenatzen** jarraitzen dute. "Urte asko izan dira maila altuan kirola egiten, eta bat batean uztea ez da gauza ona. Zerbait egitea behar dut, energia asko dut eta ez badut ateratzen arriskuhandia dut" dio Egoik. Jorge ez dabil txirrindulan gehiegi. "Orain ez dauzkat gogo asko. Taldearen desagerpena bat bateko kontua izan zen eta piskat erreta atera nintzen. Gogorra egiten zait janztea, prestatzea... Bizikleta munduarekin harremanetan nago eta gustatuko litzaidake beste modu batean jarraitzea, baina uda lasai hartzea eta disfrutatzea erabaki dut" dio Ziordian bizi den altsasuarrak.

Aldiz, entrenatzen jarraitzen du Pablok, Gorka Verdugorekin sarritan. "**Taldea desagertzea** ezustekoa izan zen denendako. Asko aldatzen da egoera txirrindularitza nahita edo behartuta uzten baduzu. Aldaketa hori zailagoa izan da gehienok ez genuelako txirrindularitza utzi nahi. Niri jarraitzeko aukera eman zidaten PinoRoad taldean, baina gero ez zen egitasmoa aurrera atera. Oraindik ez dut argi etorkizunak nondik jarraituko duen eta momentuz ia egunero ateratzen naiz entrenatzera, formari eutsi nahian. Hurrengo urtean jarraitzea gustatuko litzateke baina badakit urte bat lehiatzen ibili gabe zaila izango dela. Esperantzarako beti dago tartea eta ikusiko dugu" azaldu digu urdiaindarrak.

Tourra Nibalik irabazi du eta hiru txirrindulariak ados daude siziliarra jaun eta jabe izan dela esaterakoan. **Euskaltelen desagerpenak** eragin zuzena izan du Tourrean. "Pirinioetan laranja kolorea sumatzen zen baina ez hainbeste, ezta heren bat ere eta jende kopurua ere asko jaitsi da. Aurten nahi zenuen tokian kokatzeko ez zen aparteko arazorik. Jaitsiera hori sumatu da eta espero dugu egungo txirrindulari gazte hauek puntan daudenean berriz berpiztea" gehitu du Azanzak.

Txirrindulari zireneanhemendik hara zebiltzan beti, eta orain **bizimodu berria**, sedentarioa daramate. "Aldaketa handia da eta kosta egiten da. Oraingo lasaitasuna ongi etortzen zait. Familia askoz hobe ikusten dut eta aldaketa errazten laguntzen nau horrek. Baina beste batzutan mugimendua behar dut eta nire historiak eta erronkak bilatzen ditut. Egia da gauza berriak sartu behar ditudala nire bizitzan. Baina aurten lasaitasuna behar dut" azaltzen du Egoik.

Txirrindularitzan **Tourra** da errege. "Batetik gehien gustatzen zaidan lasterketa da eta, bestetik, okerren pasatzen dudana: urduritasun asko, erorikoak, zure burua erakustea oso zaila da... Baina horri esker munduko lasterketarik inportanteena da" dio Pablok. Aldiz, Jorgeri gehien gustatzen zaion proba Giroa da. "Gauzak ongi joanda Tourra eskaparaterik hoberena da. Baina mendiko etapetan Giroa oso polita da eta ibilbideak niri ere Girokoak gehiago gustatzen zitzaizkidan" azaldu du Jorgek. Egoik, aldiz, ez du zalantzarik. "Niretzat onena, dudarik gabe, Tourra da. Ezberdina da. Besteak ere egin ditut. Giroak paisajea eta portuak ditu bere alde, oso politak dira. Baina ikuskizun bezala, duen erreperkusio bezala eta zirko bezala Tourra ezberdina da" azpimarratu du Egoik.

Hartzen duten bidea hartzen dutela, **zorte onena** opa diegu.

#VueltaSakanan

Rural Kutxa: “Harrobia betidanik izan da gure proiektuaren ardatza, eta hala izaten jarraituko du, zailtasunak zailtasun”

Rural Kutxa txirrindulari taldearen bizkarrezurraz hitz egiterakoan, nahitaez aipatu behar ditugu Alberto Mazkiaran, Juanma Hernandez eta Floren Eskisabel. Albertok teknikari gisa dihardu, Juanma manager lanetan dabil eta Floren, bere aldetik, taldeko presidentea da. Hirurak sakandarrak eta txirrindularitza zale porrokatuak, besteak beste beren hastapenez eta taldearen bilakaeraz mintzatu zaizkigu.

Elkarrizketa: Eñaut Arribengoa Apaolaza

Zergatik sartu zineten txirrindularitzaren munduan?

Alberto Mazkiaran: Aita eta anaia txirrindularitzaren mundutxoan buru belarri zeuden sartuta, eta horrek nigan eragin zuzena izan zuen. Bizikletan ibiltzen 8 urterekin hasi nintzen, eta hemengo taldeko kategoria guztietatik pasatu nintzen, eskoletatik afizionatuetaraino.

Juanma Hernandez: Ni 12 urterekin hasi nintzen. Olaztin ospatu zen lasterketa batean parte hartu nuen, eta maitemindu egin nintzen. Horrela, Florenek eta beste batzuek sortutako Burunda Txirrindulari Taldean izena ematea erabaki nuen. Geroztik gaur egun arte txirrindularitzan sartuta egon naiz, eta hala jarraitzea espero dut.

Floren Eskisabel: Burunda Txirrindulari Taldearen sorrerarekin batera sartu nintzen. Bi arrazoirengatik sartu nintzen proiektu honetan: txirrindularitzarekiko zaletasuna betidanik izan dudalako eta, batez ere, garai hartan hemengo txirrindularitza bultzatuko zuen proiektu baten beharra zegoelako.

Zein urrats eman dituzue gaur egungo postura iristeko?

F.E.: Burunda Txirrindulari Taldea sortu zenean, ea zuzendaritza lanetan aritu nahi nuen galdetu zidaten, eta baietz erantzun nuen. Taldea sortu zenetik gaur arte proiektu honetan buru belarri sartuta ibili naiz.

J.H.: Ni taldeko kategoria guztietatik igaro nintzen. Amateurretan eroriko gogor bat izan nuen, txirrindularitza utzi behar izan nuelarik. Orduan zuzendari lanetan hasi nintzen amateur taldean. Eta talde profesionala sortu zenean, manager lanari ekin nion.

A.M.: Amateurretan ibili ostean, denbora batez txirrindularitzatik aldendu nintzen, baina faltan botatzen nuenez, itzuli egin nintzen. Orain teknikari lanetan nabil, bizikletak atontzen, batzuetan zuzendari lanak egiten... Momentuan tokatzen dena.

Rural Kutxa taldea 1992an sortu zen, Burunda klubaren eskutik, talde afizionatu lez. Profesional mailara iritsiko zinetenik uste al zenuten?

J.H.: Ilusioa beti izan dugu, baina ez genuen lortzerik espero, benetan zaila delako.

F.E.: Hasieran gure helburua talde amateurraren biziraupena bermatzea zen. Profesionaletara iriste hori guretzat amets bat zen, baina une hartan ez zen hil ala bizikoa. Urteak joan ahala talde profesional bat sortzea beharrezkoa zela ikusi genuen, horrelako talde bat ez izateak hemengo txirrindularien proiekzioa eteten baitzuen.

2010ean afizionatuetatik profesionaletarako jauzia eman zenuten. Nolakoa izan zen jauzia?

J.H.: Rural Kutxarekin elkarrizketak izan genituen. Guk argi eta garbi esan genuen hutsune handi bat zegoela, afizionatu mailako txirrindulariek ez zutelako aukerarik urrats bat aurrera egiteko. Hemen maila handiko gazteak zeuden afizionatu mailan, baina ezin zuten aurrera egin, hori ahalbidetuko zuen talderik ez zegoelako. Gure argudioak entzunda, Rural Kutxak proiektuari babesa ematea erabaki zuen.

Talde profesionala sortuagatik ere, talde afizionatuak bere horretan darrai, emaitza politak lortuz gainera. Nolakoa da aldi berean bi talde kudeatzeko lana?

A.M.: Lan handia suposatzen digu. Ordu luzeak ematen ditugu egutegiak prestatzen, jendea antolatzen, babesleak bilatzen... Egunerokotasuna talde amateurrean eramangarriagoa da, probak soilik asteburuetan izaten direlako. Ostera, talde profesionalean egunerokotasuna ez da horren erraza, bidaiak eta beste gauza asko planifikatu behar direlako.

Kontinental mailan urte bakarra eman zenuten, 2011an Kontinental Pro mailara igo zinetelako. Zergatik eman zen horren bilakaera azkarra?

F.E.: Kontinental mailara iristean egutegia murriztuegia zela ikusi genuen. Maila honetan soilik 27 lasterketa daude hemengo talde batentzat, eta hori, gure iritziz, gutxiegi da. Gainera, Kontinental mailan bidai eta desplazamenduen gastu guztiak taldeak berak ordaindu behar ditu. Argi geneukan kategoria honetan geldituta ez genuela aurrera egingo.

Azken urteetan tropelean ezagunak diren txirrindulariak fitxatu dituzue, adibidez, Luis Leon Sanchez edo Amets Txurruka. Harrobiak zuen proiektuaren ardatza izaten jarraitzen al du?

J.H: Bai, beti izan da eta hala izaten jarraituko du. Tamalez, txirrindularitza asko ari da irekitzen, eta hemen profesionaletan ibiltzeko maila duen geroz eta jende gutxiago dago. Guri beti gustatu izan zaigu zonalde honetako txirrindulariekin ibiltzea, baina jubeniletan jada ikusten da hemengo txirrindulari geroz eta gutxiago dagoela. Guk harrobiarekiko apustua egiten jarraituko dugu, eta noizbait talde profesionala desagertzen bada talde amateurrak hor jarraituko du.

Begirada atzera botatzen baduzue, zein da taldean bizi izan duzuen momenturik bereziena?

F.E.: Oso urrutira joanda, niretzat Santi Crespok Bagorrizen lortu zuen garaipena. Nire oroimenean leku berezia dauka.

J.H.: Niretzat Estafetan txirrindularien atzetik autoarekin joatea. Ileak tente jarri zitzaizkidan. Unean nuen emozioarekin uste nuen erlojupekoan lehenengo edo geratu ginela, nahiz eta gero azkenak izan.

A.M.: Nik ez daramatzat hainbeste urte taldean; hala ere, oso momentu politak bizi izan ditut. Bereziki oroitzen dut Espainiako Kopa irabazi genuenekoa. Taldeak txapelketa hura irabazi zuen lehen aldia zen.

Abuztuaren 27an hasiko da Espainiako Itzulia, korritzen dituzuen lasterketen artean garrantzitsuena. Zein da helburua?

J.H.: Ahalik eta ihesaldi gehienetan sartzea. Behin hori eginda, etaparen bat irabazten saiatuko gara. Horretarako jendea badugu, eta gainera motibazioz gainezka daude. Ez da erraza izanen, aurtengo edizioak maila oso handia izango duelako, baino saiatu behintzat saiatuko gara. Etapa bat irabazita, denboraldia eginda izanen genuke!

Aralarren bukatzen den etapa gorriz markatuta izanen duzue...

F.E.: Noski. Oso zaila izango da, etapa oso gogorra delako, baina nork daki... Zeinek esanen zuen Covadongako Lakuetan irabaziko genuenik? Eta azkenean begira. Gainera etxean korritzeak eta zaletuak alde edukitzeak asko egiten du. Oso egun oso polita izango da, eta espero dugu hemengo jendeak goi mailako txirrindularitzaz gozatzea.

Txirrindularitza

Sakana Burunda txirrindulari martxa, Vuelta baino aste pare bat lehenago

Agorrilaren 23an, larunbatean, 8:30ean, Altsasun. Bi ibilbide izanen dira: Aralarrera igoko dena (124 km) eta Aralarrera itzoko ez dena (100km)

Burunda Txirrindularitza Klubak IV. Sakana Burunda txirrindularitza martxa prestatu du agorrilaren 23rako. Helburua Sakana ezagutaraztea eta txirrindularekin egun ederra pasatzea da. Aurreko urtean maiatzaren 18an jokatu zen proba, euripean eta elurpean eta 66 txirrindularik hartu zuten parte. San Migelgo krono-igoera bertan behera geratu zen, Aralarren elurra ari zuelako. Eguraldi hobea izateko asmoz proba agorrilera aldatzea erabaki zuen Burunda klubak, eta aurten Vuelta irailaren 3an Aralarren despedituko dela eta horrek sortuko duen tiroia aprobetxatzeko, agorrilaren 23an aginen dute.

BI IBILBIDE

Nobedade moduan, aurten bi ibilbide izanen dira: ohikoa, tartean Uharte Arakilgo pistatik Aralarrera igoko dena, 124 km-koa, eta laburrago bat, Aralarrera igoko ez dena (100 km). Proba trafikoa zabalik dagoela gauzatuko da, San Migelgo igoera kronometratua izan ezik.

OHIKO PROBA (24 KM ETA 2.011 METROKO DESNIBELA)

IV. Sakana Burunda proba ez lehiakorra da. Ohiko ibilbidea mantendu dute. Goizeko 8:30ean Altsasuko Foru Plazatik aterako dira txirrindulariak, Ziordirantz. Han buelta hartuta Urbasako Altamira portua igoko dute, Etxarriraino joateko. Han Lizarragako Katea igo, Arbizutik jaitsi, Uharte Arakilen Aralarko portua igo, Baraibartik Oderitzera jo eta Madotzeko portua jaitsiz, buelta hartu eta Altsasuraino jotzeko. 124 km-ko ibilbidea izanen da, 2.011 metroko desnibelarekin.

Uharte Arakildik (456,30 m) San Migelera (1216 m) bitarteko 9,4 km-ko igoera kronometratua izango da, proba ez lehiakorrari saltsa eman nahian. Gehienezko malda %18koa da. Duela 3 urte Carlos Palaciosek ezarri zuen denbora onena (30:47). Ibilbide laburra ohikoarena bezalakoa izango da baina Uharte Arakilera helduta Aralarrerantz jo beharrean aurrera egingo dute txirrindulariek, Zuhatzuraino. Bertatik buelta hartu eta Altsasuko helmugarantz joko dute.

Izena emateko: www.clubciclistaburunda.com

Aurrez izena emateko Burunda klubeko web orria jo behar da. Probaren informazio guztia, rutometroa barne, Burundako web orrian dago ikusgai.

kultura >>

ABORTUAREN LEGEAREN KONTRAKO FILM KOLEKTIBOA: Hilaren 10ean mustu zen estatuan *Yo decido. El tren de la libertad* dokumental kolektiboa. Emakumek ondutako lan horretan aritu da Helena Taberna.

Erkudengo Ama abesbatza Ingalaterrara

Astelehenetik domekara joanen da abesbatza eta hiru emanaldi eskainiko dituzte

Egitaraua

- Agurra
- Cherubin song
- Somewhere
- Shennandoah
- Swing low
- Non potto reposare
- Juramento
- El breve espacio en el que no estás
- Jota+Orreaga
- Herribehera
- Baratze bat
- Ilunabarra
- Mendirik mendi
- Pannis Angelicus
- Agur zaharra
- Maitia nun zira
- Bogoroditze
- An irish blessing

Tautongo Amici abesbatzak eginen die harrera Ingalaterran. Izan ere, bidaia truke baten ondorioz sortu da. Bitartekaria Urdiainen bizi eta Erkudengo Ama abesbatzan kantuan ari den Mary Davis ingelesa da. Bere gurasoak Tautongo abesbatzan aritzen dira, Altsasukoaren modukoa, 30 bat ahots mistokoa. Hona bisitan etorri ziren batean Altsasuko abesbatza entzun eta zuzendu egin zuten eta trukerako aukera hala sortu zen. Aurten altsasuarrak doaz Ingalaterrara eta heldu den urteko agorrilean Tauntondik bisitan etorriko dira.

Ostegunean, 19:30ean, Halsen emanen dute kontzertua eta hurrengo egunean, 20:00etan Tauntonen. Bi emanaldietarako polifonia oinarri duen egitaraua osatu dute euskal folklorea, hego amerikarra, errusiarra biltzen duena. Halsen herriko abesbatza izanen dute lagun akaberan eta Tauntonen Amici abesbatza. Bi emanaldietan egitarauko azken lau obrak elkarrekin emanen dituzte bi abesbatzek.

Horretaz aparte, ostiral eguerdian kontzertu motz bat emanen dute golf-eko klub batean. Euskal folklorean aparteko interesa azaldu dute eta Erkudengo Ama abesbatzak euskal doinuekin ordu erdiko emanaldia prestatu du. Egitarau labur horretan, eta euskal kantatzeko eren ikuspegi oso bat emateko jota bat tartekatu dute. Hura kantatuko duena txuri gorriz ariko da abesten. Abesbatzeko gainontzeko kideek erabaki dute euskal folklorearen aberastasuna erakusteko baserritar jantziz ariko direla, abesbatzaren jantzia baztertuta.

Kantua eta gehiago

Astelehenean Ingalaterrako bidea hartuko dute Erkudengo Amako 32 kideak eta laguntzaileak, 49 pertsona guztira. Lan kontuengatik abesbatzako kide guztiak ezin izan dute joan eta ohiko laguntzaile diren lau pertsonekin indartu dute abesbatza. Atlantikoko irlaren hego mendebaldean emanen duten astean altsasuarrek Taunton, Wells, Glastombury, Stonehenge eta beste ezagutzeko aukera izanen dute. Erkudengo Ama abesbatza aurretik Argentinan bitan, Sardinian, Portugalen edota Austrian egona da. Holandako taldekide bat dutenez, hurrengo irteera hara izan daitekeela aipatu digute abesbatzatik.

Ihabarko antzerki taldea lanean

Zazpigarren urtez segituan ihabardarrak uda partean antzerki emanaldia prestatzen ari dira. Jon Barbarin Lisarriren esanera jarri dira 14 ihabar heldu eta haur eta uhartear bat. Guztien artean Angel Saguesen Una aventura en la basura kaleantzezlana prestatzen ari dira.

Barbarinek esan digunez, piraten istorioa da prestatzen ari direna: "abenturazko obra bat, antzerkia antzerki barruan azaltzen duena. Obra komikoa da". Jendaurrean garbitzaileak, italiar familia, bidaia, piratak, altxorraren bila ari direnak, monarkia eta beste agertuko dira.

Garagarzaro hasieran hasi zituzten entseguak, baina zuzendariaren lana dela eta, gora beherak izan ziren eta garilean heldu diote berriro. Normalean festen aurreko asteburuan egin dute antzezpena. Eta aurten ere asmo hori zuten, baina ez badira iristen festen ondoren emanen lukete.

Gerraren gainetik, laguntasuna

Horixe aldarrikatzen du Bubamara Dance Theateren Amico antzezlana, agorrilean Zuhatzuko (9an, 17:30ean) eta Ihabarko (31n, 21:00etan) festetan ikusteko izanen dena.

Txori Garcia Urizek eta Ion Barbarinek osatzen dute Bubamara Dance Theater konpainia. Aspaldiko lagunak dantza, antzezpena eta keinu-antzerki asko duen laguntasunari buruzko antzezlana osatu dute. Martxoaren 14an mustu zuten Iruñeko Nafarroako Antzerki eskolan eta agorrilean Sakanan ikusgai izanen da.

Balkatenako ijitoen kulturan eta musikan inspiratutako lan da, Emir Kusturicaren Underground filma oinarri hartuta. Euren erara dotoreak diren bi lagun dira protagonistak. Berdin dio bidaiari, immigrante edo nomadak diren, bizitzak indarrez banatu ditu. Balkanetako gerra, edo beste edozein gerra zibil, bete-betean dela topo egiten dute.

Topaketak une komikoak eta samurrak ditu. Gerraren erdian bizitzaren eta laguntasunaren aldeko aldarria egiten dute. Hitz gutxi eta musika asko duen muntaia da. Jendaurrera mahaia, aulki pare bat, maleta batzuk, botila bat, bi edalontzi eta kolorea galduta duten bi trajerekin agertzen dira.

bazterretik

Andoni Igoa. Arkitektoa.

Iruñea

Aurten ere sanfeminetan izan naiz egun pare batez. Festa hauetan beti bezala, giro desberdinak disfrutatzeko aukera izan dut, adibidez, udal enparantzatik beste Alde Zaharreko kale askotara, edota Takonerako Nafarroa Oinez gunetik, Errotxapean egoten den jaigunera.

Nahiz eta jai giroak arreta handiena eraman, hiriari buruz hausnarketa egiteko denbora ere izan dut. Ikaragarria da Nafarroako hiriburuak arkitektura aldetik zer aldaketa eman duen azken urteotan. Betidanik eraikin oso interesgarriak izan arren, orain protagonismoa eman zaie eraikinak berrituz eta arkitektura modernoarekin konplementatuz.

Adibidez, Alde Zaharrean oso interesgarriak iruditzen zaizkidan eraikin berritu batzuk Nafarroako Artxiboaren eraikina (kapitania) eta Kondestableko jauregia dira. Zeresanik ez dago La Perla hotelak izan duen aldaketak nola jantzi duen Gaztelu enparantza.

Arkitektura berriari dagokionez, interesgarriak iruditzen zaizkidan beste batzuk izendatuko ditu, esate baterako, Baluarte eta bere plaza inguratzen duten eraikinak, Gotorlekua apaintzen duen autobus geltokia, zabaldu berri duten bi unibertsitateen arteko pasioa, Karlos III.a etorbidea, Errotxapeatik Alde Zaharrera eramaten duten igogailuak...

Hala ere, arkitektura interesgarria ikusi nahi duenak 60-70ko hamarkadan egin ziren hainbat eraikin ikus daitezke Gaztelu bueltan edota 2. zabalgunean.

Bukatzeko, nik orain dela urte gutxi ezagutu nuen ibilbide eder bat aipatu nahiko nuke. Hau Takoneratik hasi eta hiriko muraila paretik Alde Zaharra inguratzen duen ibilbidea da. Errotxapeatik igotzen diren igogailuen atzetik pasa eta katedral atzealdera joaten da. Ondoren polemikoa izan den pasarela berri batetik igaro daiteke zezen plazara eta aurrerago ilargi erdiko parkean amaitutzat eman dezakegu ibilbidea. Ibilbide honek Paseo de Ronda izena du.

Gordinago izanda, Tourek gehiago sufritzen du

Hala adierazi du Jon Arretxe idazleak bere azken liburuaren aurkezpena **Beleixe Irratian (FM 107,3)** egiterakoan

Jon Arretxek Toure protagonista duen sagako hirugarren alea maiatzaren 26an aurkeztu zuen: *Hutsaren itzalak* (Erein, 2014). Aurreko bi liburuen ardatza Toure bera zen, bere zirkunstantziak, bere egoera bera. Hirugarren honetan, ordea, sortzen zaizkion arazoak dira irakurlea gaztigatuko dutenak. Kritika sozial handia dagoela nabarmendu du egileak berak.

Arbizukoa Toure protagonista duten hiru nobela oso ezberdin egin nahi izan ditu. "Bestela, saga bat egiten duzunean Toureren beste bat izateko arriskua dago. Denak berdin. Eta nik nobela bakoitzak bere nortasun berezia eta desberdina izatea nahi nuen". Idazleak adierazi duenez, *19 kamera* (Erein, 2012) dokumentalagoa izan zen, "hasiera klabean idatzia, Toure aurkeztu behar nuen: Burkina Fassokoa, Euskal Herrian daukagun ghetto handienean, Bilboko San Franzisko auzoan, patera pisu batean bizi dena. Ezaugarri oso egokiak ditu auzo horrek nobela beltzak kokatzeko".

612 euro (Erein, 2013) liburuan umorearen alde egin zuen gehien bat. "Umore absurdoa, zentzugabea, niri asko gustatzen zaidana". Hirugarren hau "trama indartsua eta erritmo azkarreko nobela egin nahi izan dut. Irakurlea harrapatu eta aurrera, aurrera, aurrera segi dezala". Gogorragoa dela aitortu du. "Beltzagoa, gordinagoa. Tourek gehiago sufritzen du. Aurreko bietan afrikarrek duten positibismo horrekin edonola dena gainditzen du. Liburu honetan arazo larriagoak sortzen zaizkio. Bolada txarrean dago beti, baina oraingoan bere ohiko lantxoak okerrago doaz".

Idazlearen arabera, protagonista gizajoak krisi hirukoitza jasaten du: krisi ekonomikoa, San Frantzisko auzoko krisia (%40tik gorako langabezia) eta Toure paperik gabe segitzen du sasi-abokatu batek, beste askori bezala, iruzur egin diolako eta 2.000 euro atera diote. Eta txarrena, bere egoeraren berri duen ertzain-sekreta saiatzen da xantaia egiten, bera salatari izan dadin. Auzoko mezkita berrian, trapitxeoak egiten diren lokutorioan… salatari bat nahi du poliziak.

Emakumeak

Lau emakumek sekulako pisua dute Arretxeren azken sorkuntzan. Lehenengoa Toureren alaba da, Sira, 18 urte inguru ditu eta Parisen bizi da. Umeak zaintzez bizi dela esaten dio, baina Toure ez da fio. Sumatzen du beharbada bere inguruan ikusten duen prostituzio mundu horretan sartuta dagoela. Alabak esaten dio bisitan joanen zaiola. Toure poz-pozik dago albiste horrekin, paperik ez duenez, ezin baita Parisa joan. Sira ez da Hendaiako tren geltokira iristen. Damutu da, desagertu da, bahitu egin dute…

Hori du abiapuntua liburuak. Bigarren emakumea Sa Kene da, Toureren amorantea. Paperik gabe Toure ezin da Hendaiara joan eta Sa Kene bidaltzen du alabaren bila. Oraingoan bera da ikerlari nagusia.

Hirugarren emakumea, prostituta nerabe nigeriar bat da, Uwa. San Frantzisko-Las Cortes aldean bizi dena. Afrikako ibilbide gogorrean haurdun gelditu zen. Lehen prostitutak abortatzera behartzen zituzten jardunera berehala bueltatzeko. Uwari umea kendu zioten edo saldu egin zuen, hobe esateko. Damutu egin da eta hura berreskuratzen Tourek laguntzea nahi du. Mafia nigeriarrari aurre egitea arriskutsua bada ere, errukitu eta lagundu eginen du.

Laugarren emakumea Mariam emaztea da. Gorom-Goromen, Burkina Fason, bizi da. Zain egotea beste erremediorik ez du. Tourek paperak lortu arte ezin du familia Euskal Herrian batu eta Mariamek zirt edo zart egin nahi du: alaba eta senarra hara joan edo bera hona etorri. Lehena bada, hobe. Berriak jasotzeari uzten dio eta kezkatu egiten da, zerbait txarra gertatu denaren susmoa du. Itxaronaldi tristea du.

Toure Ibaizabalen kokatzen du akaberan, halako zapore gazigozoa utziz, akabera irekian, irakurleak interpretatu ahal izateko. "Hau horrela utzita trilogia moduan ere ongi egonen litzateke. Hiru nobela oso ezberdinak dira. Nik hasieratik argi neukan hau hasieratik serie bat izanen zela. Irakurleari Toure gustatuz gero argi neukan serie luzea izanen zela. Eta jendeak Toure estimuan hartu du, mezuak jaso ditut. Eta bai, egonen da laugarren bat".

Hainbat gai

Emakumezkoen salerosketa da Arretxek liburuan aipatzen dituen gaietako bat. "Hiri handietan prostituzioan ikusten diren emakume afrikarrak normalean nigeriarrak dira, nahiz eta beste herrialde batzuetatik etortzen hasi diren. Neska gazteak izanen dira. Nigeriatik abiatzen direnetik hona iristeko, bataz beste, bi urte behar dituzte. Bidean sufritzen dutena tortura hutsa da. Bideko senarra dute tartean, eta nahi duena egiten du: jipoitu, bortxatu, gaur honekin oheratu behar duzu, bihar horrekin... Dena baimenak, zigiluak lortzeko. Poliziak edo funtzionarioak izan litezke, botere apur bat duten guztiak. Sekulakoa sufritzen dute. Sekulako sarea dago muntatuta".

Orain haien umeekin trafikatzen hasi direla jakinarazi digu idazleak: "hainbeste bortxaketa gertatuta normala da haurdun gelditzea. Lehen abortatzera behartzen zituzten, prostituzioan segitzeko. Orain ume horiek era askotara esplotatu ditzaketela konturatu dira mafiosoak". Moduetako bat pateran pasatzen diren emakumeei umea alokatzea da, horrela muga errazago pasa dezaten. "Seme-alaba dela esan eta lehen errazago uzten zieten sartzen. Lehen egia esaten zen. Poliziak horren berri badu eta amari eta umeari DNA probak egiten hasi da. Ume horiek, bestela, prostituzioan pedereastendako erabiltzen direla esaten da. Sekulako istorio latzak entzuten dira". Halakoak San Frantzisko auzoan prostitutei konpainia, aholkua eta laguntza ematen dien Askabide elkartearen egoitzan, besteak beste, entzuten dituela azaldu du Arretxek. Bestalde, liburua tarta jaurtiketa batekin hasten da eta tartalarien aipamena egiten du. Aipatzen duen bestea, denboraren bankua da. "San Frantziskon ez dute dirurik eta denbora bankuak oso ongi funtzionatzen dute. Elkarri laguntzen diote, zerbitzuak elkar trukatuz. Tourek informatika ikasketak behar ditu eta bera edozertarako eskaintzen du bere burua: frantzes klaseak eman, magia irakatsi..."

Hutsaren itzalak, izenburua

Aurrekoetan bezala zenbaki bat eta hitz bat zituen izenburua nahi zuen Arretxek izenbururako eta Lau emakume egokia zela pentsatu zuen. Baina argitaratu aurretik irakurri ziotenak esan zuten ez zela nobelaren ardatza. "Nobelaren filosofia kontuan izanda zero izan zitekeen zenbaki bakarra, Toure maila horretan dagoelako zero edo zero azpitik, oso-oso pott eginda". Zero zenbakia idatzita o gisa irakur zitekeenez, huts hitzaren alde egin zuen. "Hutsik dago Toure. Atzerritar pobreok zer gara bertokoendako, itzalak, ikusezinak, ez daukagu paperik, inor akabatzen bagaitu edo desagerrarazi inor ez da kezkatuko, ez da ezer gertatu. Hori da tituluaren esanahia. Hori da benetan etorkin asko, zoritxarrez". Izenburuak jartzea batzuk oso erraz. Batzutan aurretik. Batzuk idatzi ahala. Orain inprentan zegoen ia eta ni bueltaka zein titulua ezin asmatu. Cristina Fernandez itzultzaileak poema bat aipatu zuen eta hortik etorri zen eta Hutsaren itzalak izenburua eman dio. Sombras de la nada (Erein, 2014) gaztelaniaz.

Umeendako idazten

Uda partean, Beleixe Irratian (FM 107,3) esan duenez, Jon Arretxe umeendako liburu bat atera nahian dabil. Bakarra du arlo horretan, Harresi handirantz (Alfaguara-Zubia, 1997). "Kasualitatez, liburu borobila atera zitzaidan, ni ez bainaiz haur literaturako idazle. Arrakasta handia izan zuen eta toki guztietan irakasle eta ikasleen eskaerek animatu naute, batez ere".

Orduko hartan Sri Lankako mutiko bat asmatu zuen. Txinaraino ailegatu behar zuen Asia zeharkatuz, altxor baten bila. Bidean ipuinak entzuten zituen... Orain ume afrikar bat asmatu du Arretxek. Horrek ere kontinentea zeharkatu beharko du honako bidean. Bideko abenturak eta beste jasoko ditu kontakizunean.

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	18%	85%	20%	15%	13%	10%	15%
Min:	14	13	12	13	13	13	13
Max:	21	19	23	25	25	24	24

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	27.5	14	14.1
Etxarri A.	26.6	10.2	8.9
Altsasu	24	11.5	13.4
Aralar	17.8	7.5	22.1
Urbasa	23	12	2.7

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
4	10	17	25

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Garileko bazkide saituak

beleixeguaixe

1.- **Angeles Colomo Razkin** (Arbizu)

2.- **Mari Puy Gorriz Nagore** (Etxarri Aranatz)

3.- **Alfredo Garasa Goikoetxea** (Altsasu)

4.- **Bakaikuko Udala** (Bakaiku)

IRAILEKO SARIAK:
1- Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea.
2-Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.
3- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.
4- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.

guaixe
KOMUNIKAZIOA
diseinua & inprimatzea
logotipoak
bisita txartelak
faktura-albaranak
eskuorriak...
argi@guaixe.net | 948 564 275
Foru plaza 23 - 1 | ALTSASU
www.guaixe.net | Beleixe irratia 107.3FM
guaixekomunikazioa.blogspot.com

>>11 galdera

Patxi Satrustegi eta Miguel Ganboa

Arruazuko soroen izendegia mapa batean

Testua: Maialen Huarte Arano

1. Arruazu inguratzen duten larreen izenak bildu dituzue mapa batean.
Toponimoen mapa bat osatu dugu bai. Arbazu inguratzen duten zelai eta mendipeen izenak bildu ditugu eta horixe da mapak erakusten duena. Antzina, gure aiton-amonek izendatzen zituzten moduan markatu ditugu guk ere mapan.

2. Nondik sortu zaizue ideia?
Duela 15 bat urte Nafarroako Gobernuko bi kide izan zirela Sakanako zenbait herritako toki izenak biltzen. Izen horiek hartu eta grabatuak dituzte. Mapa topografiko batean kokatu zituzten zenbait leku izen, baina, batzuk ez daude zehazki ongi kokatuta eta beste zenbait ez dira ageri ere egiten. Horiek guztiak apuntatu eta hortik tiraka aritu gara lanean.

3. Zenbat denbora behar izan duzue hori guztia biltzeko?
Duela urtebete hasi ginen. Herriko helduek baino ez dituzte erabiltzen zenbait larreetako betiko izenak. Galtzeko zorian egon daitezkeela ikusirik, beldur horrekin ekin genion bilaketa lanari. Behin dokumentazio lana eginda, izen bakoitza dagokion tokian kokatzea iruditu zitzaigun egokiena, denboran ahalik eta hobekien gordetzeko.

4. Noiz ekin zenioten lan horri?
Urtebete da dagoeneko mapa amaitu genuela. Eta beste urtebete behar izan genuen mapa guztia osatzeko. Ematen duena baino lan handiagoa da. Izendegiak begiratu eta Nafarroako Gobernuko dokumentazio zerbitzuan begira behin baino gehiagotan izan gara, kartografia departamentuan. Denbora gehien horretan eman dugu; izen batzuk ia galduak zeuden edo mapa batean kokatzeko zailtasunak genituen. Hortaz, toponimo horien bila aritu gara, dokumentazioaren bila.

5. Zenbat toki izen ageri dira mapa horretan?
200 inguru izendatzea lortu dugu. Larre handienei eta txokorik zabaleneri erreparatu diegu. Larre bakoitzaren barruan toki txikiagoek ere izenak badituztela jakinda ere, dena ezin da mapa batean txukun kokatu. Horregatik iruditu zitzaigun garrantzitsuenak jartzearekin nahikoa osatua geratuko zela mapa.

6. Zergatik uste duzue galdu dela soroetako ohiturazko izenak erabiltzea?
Garai batean herritarren parte handi batek erabiltzen zituen zelaiak. Nekazaritza eta abeltzaintza nagusi ziren herrian. Lan ohiturak asko aldatu dira eta egun ez da horrenbeste lanik egiten soroetan ez eta animaliekin ere. Jende gazte gehiena ez da ia soro horietara joaten.

7. Bi motatako mapa osatu duzue.
Ipso motako mapa esaten zaio bati. Altitudeak eta latitudeak ageri dira zehazki markatuak toki izenekin batera, eta erliebea ere badu mapa mota horrek. Orrialde horixketan irudikatzen dira. Beste motako mapa, orto motako mapa, errealitatetik gertuago dagoena dela esan daiteke. Argazki baten itxura duena da. Larreak diren modukoak ageri dira eta horien gainean izenak ikus daitezke.

8. Mapa osatuta, Arruazuko udalari eman zenioten herritarrei zabaltzeko asmoz.
Iruditu zitzaigun herriko jendeak etxean izateko aukera eskaini behar genuela. Azken finean, izen horiek galtzerik nahi ez badugu jendeak jakin behar dituelako. Udalari gustatu zitzaion egindako lana eta salgai dago. Lamina gisa eros daiteke eta edo mapa koadro baten barruan erosterik ere bada.

9. Herritarrek nola jaso dute zuen lana, zein harrera izan du?
Lana bukatu genuenean, herrian egindako batzar batean hitz egin genuen gaiaz. Eskuratzeko aukera bazutela esan eta eskaera dezente izan direla uste dugu, uste genuena baino arrakasta handiagoa izan du.

10. Mapa horren albo batean, Arruazu herriaren izenari ere erreparatu diezue. Bitxikeria gisa jarri duzue hori?
Arruazuri izena nondik datorkion kokatzea ere aproposa dela iruditu zaigu. Nahiz eta idatzirik agertzen dena teoria bat izan, badira beste hainbat. Koadroan idatzirikoak dio Arruazu izenak azoka esan nahi duela, Mitxelenaren esanetan arrugatik dator eta merkatu edo plaza esan nahi duela. Beste batzuek ordea, dio-te, Arruazuk esan nahi duela, uzta handiko tokia. Lurraren aberastasuna adierazten duela.

11. Zein helbururekin aritu zarete bolondres lan hori egiten?
Helburu argia du lan honek: Arruazuko soro, zelai eta larreen izenak garai batean izendatzen ziren moduan, gaur egun ere izendatu ahal izatea eta ohitura hori ez galtzea. Hori lortzeko modurik onena, dokumentu idatzi batean gordetzea dela uste dugu. Eta zabaltzerik bada, hobeki.